



EXPOSICIÓN

2011



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible

Declarada de Utilidad Pública

MUGARIK GABE

Gizakiak aldaketara bultzatzeko,
ezinbestekoa dute itxaropena.
Itxaropena izan dezaten, bada, ikuspegia behar dute;
eta ikuspegia edukitzeko alternatibak erakutsi behar zaizkie.

Erich Fromm, La atracción de la vida

2010-2015 aldirako Plan Estrategikoaren barruan, beti izango ditugu lagun gure lanean funtsezkotzat jotzen ditugun bi alderdi: salaketa eta alternatibak.

SALAKETA, beste errealitate batzuei begira, bidezkoa iruditzen ez zaigun gertaera oren berri eman nahi dugulako. Gure lan-arlo espezifikoak hauek dira: generoa, Herri Indigenak eta Elikadura Subiranotasuna eta Zentzuz eta Arduraz Kontsumitzea. Lan-arlo horien barruan, bada, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun- ezarekin, herri indigenen eskubideen urratzearekin eta elikadura- eskubideak eta elikagaien ekoizpenaren subiranotasuna urratzen duten ekintza orekin zuzenean lotutako salaketak egiten ditugu. Halaber, gizarte kontsumista ere salatzen dugu, irabazi-gosea nagusi dela ikusita.

Alternatibak irudikatzen

Desazkundera eta bizitze ona topaketak

2011ko otsailak 8 eta 9- UPV/EHU, Sarrrikoko Areto Nagusia



Otsailak 8, asteartea

09:30-14:00
Desazkundera eta bizitze ona, sortzen dabiltzan paradigma berriak: zaletasunak eta eronkak
Alicia Paleo (ekoferminismoa)
Luis Macas (bizitze ona)
Yayo Herrero (desazkundera)

18:00-21:00
Magdalena León (bizitze ona)
Serge Latauche (desazkundera)
Les Kapritzesas ekitaldia
Gizarte eragileen ekarpenak

Otsailak 9, asteazkena

09:30-14:00
Hego-ipar harremanak berriaz hausnartzen
Mónica Vargas (sindikadista)
Magdalena León (bizitze ona)
Florent Marcellin (desazkundera)

18:00-20:30
Desazkundera eta bizitze onerengako sinergiak sortzen
Dinamika parte-hartzailea, proposamenak lantzeko lan-taldeak:
Ekimen politikak
Aldimailak praktikak
Aldizkak eta sareak

20:30-21:00 Amalera

Bertolariak
Serge Latauche
Yayo Herrero

Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko:
<http://desarecimentoybuenvivir.wordpress.com>




Indipendia, irons Cuarta.

*Aukera askeko kreditu bat.

SALAKETA ETA ALTERNATIBAK

Hiruren arteko platika

Elkartasun feminista indarkeria sexistaren aurka hemen eta han



ALTERNATIBAK, gizarte justuagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko. Ikuspegi sakona eta zabala izaten saiatzen gara, beste herrialde eta komunitate batzuetako esperientziak, borrokak eta lorpenak ezagutarazi nahi ditugulako. Herri-indigenek bizitza ulertzeko eta naturarekin harremanetan jartzeko dituzten moduez ari gara, bai eta barne-antolakuntzarako beste modu batzuez ere. Azken batean, bizi-esperientzia positiboak dira; harreman hobek sortzen dira, diru gutxiago kontsumituta. Errealitate horietan, bada, mugak jartzen saiatzen dira, eta taldearen kontzeptua balioesten da, bizitza ulertzeko beste modu bat dela ulertuta.



Tipularen geruzak eta Mugarik Gabe

Gure antolaketa-kulturari genero-analisiaren bidez heltzen diogu, generoen arteko desberdintasunei buelta emango dieten praktika berriak erakitze aldera.

Sortu zenetik Mugarik Gabe erakundeak apustu politiko argia egin du: gure ustez, bultzatu nahi dugun beste mundu horretan, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen artean harreman justuagoak sortzea. Horregatik, hala Latinoamerikan nola hurbilagoko errealitatean barruan aurrera eramaten ditugun prozesu guztietan, emakumeen enpoderatzearen, emakumeen giza eskubideak betetzearen eta emakumeen eta gizonen artean harreman justuagoak erakitzearen aldeko apustua egiten dugu. Hori guztia, bada, egiturazko azterketa eginda: hau da, sistema patriarkala salatuz eta alternatiben sorreran edo egun mundu osoan egon badauden alternatibak ezagutarazten aurrera eginez.

Betaurreko moreak jartzea


Gure erakunde genero-analisiaren bidez aztertzeko gakoak:

- **Politikak:** estatutuak, plangintza estrategikoa, eta funtsezko beste dokumentu batzuk.
- **Egitura:** lan-taldeak/arloak, komunikazio-kanalak eta erabakiak hartzeko esparruak.
- **Antolakuntza-kultura:** balio partekatutak, hainbat gairi buruzko ikuskera, hala nola botereak, lana...
- Guzti horrek zer eragina duen "kanpora begira".

Aspaldi ohartu ginen mota horretako prozesuen bidez egoerari buelta emateko, behar-beharrezkoa zela antolakuntza-mailan apustu sendoa egitea. Apustu horren bidez, bada, koherentzia bilatu behar genuen diskurtsoaren eta geure antolakuntza-dinamiken artean. Horregatik, 2000. urtean, genero-desberdintasunak aztertzen hasi ginen, eta erakundearen barruan aldaketak gauzatzeko proposamenak definitzeari ekin genion. Horretan gabilza oraindik.

Egindako urratsak honako alderdi hauei lotuta daude: prestakuntza eta debate kolektiboa; gure politikei, egiturari eta antolakuntza-kulturari buruzko barne-diagnostikoak egitea; genero-desberdintasunei heltzea asanblada-sisteman; komunikazio-modu ekitatiboak erakitzen lan egitea; lehentasunezko gai nagusiak (genero-berdintasuna, herri indigenak, indarkeria matxistak eta abar) aztertzeko eta haien gainean jarrera hartzea eta lan-akordioek praktika orokorren gainean, besteak beste, aldaketak eragiteko duten ahalmenari buruz hausnartzea.

2011n zehar, prozesu horretan aurrera egiteaz gain, bultzada berri bat eman diogu berdintasunaren aldeko prozesuari, geure antolakuntza-kulturari bete-betean heldu baitiogu. Erakunde guztia, eta Genero Arloa



bereziki, buru-belarri aritu gara genero-azterketa lantzen, eta estrategiak identifikatu ditugu, gure antolakuntza-kulturari ikuspegi feminista baten bidez heltzeko. Lan horretan, Natalia Navaroren konplizitatea izan dugu lagun. Prozesuaren hasieran Mugarik Gabe erakundearen antolakuntza-kulturaren eta praktiken genero-azterketa egin genuen (emakumeek eta gizonak, bakoitzak zer egiten duen harago). Ikusi genuen kultura indartsua eta sendoa dugula, eta kultura horretan feminismoak protagonismo argia duela. Halaber, sakontzen jarraitu behar dugun funtsezko alderdi batzuk identifikatu ditugu. Alderdi horietan aldaketak egin beharko ditugu, bestela kultura patriarkala eta hegemonikoa kopiatuko genuke-eta. Orain arte definitutako alderdiak gai hauei lotuta daude:

- Gure bizitzako hainbat esparrutan (lana, intimitatea, militantzia, zaintza-lanak, aisialdia...) dagoen banaketa tradizionalaren aurrean, koherentzia eta ikuspegi globalari lotutako ideari buruz modu kolektiboan hausnartzeko beharra. Halaber, pertsonala/indibiduala eta ekitatea/berdintasuna alderdien arteko debeteari berriz heltzea.
- Enplegua bizitzaren ardatz gisa duen ereduaren inplikazioak aztertzeko, eta bizitza bera ardatz gisa duen eredu alternatibo bat definitzeko eta zehazteko moduei heltzea. Eguneroko praktikan alderdi logikoaren artean talkak sortzen direla ikustea: eraginkortasuna/koherentzia, publikoa/pribatua, eta abar.
- Lan egiteko moduak aztertzeko, eta talde-lanari buruz hausnartzea, modu tradizional edo indibidualistagoen aldean alternatiba izan daitekeela ulertuta, hala erabakiak hartzeko prozesuetan nola bestelako praktiken garapenean.

Lanean jarraitzen dugu, eta jakin badakigu hau guztia etapa berri batean hasiera dela. Ikusmoldea aldatzen ez ezik, diskurtso, praktika eta are eredu berriak erakitzen ere laguntzen digu, ikuspegi feministaren bidetik.



4

Egitekoa

Mugarik Gabe parte-hartze tresna bezala

Aldaketa pertsonala eta soziala gauzatzeko, kontzientzia hartu eta norabide horretan lan egin beharra dago, horrela beraz, Mugarik Gabe helburu horretarako tresna izan dadila nahi dugu.

Hori hala izanik, antolamendu guztiz asanblearioa dugu, hau da, erantzukizunak partekatzen ditugu eta bazkide, boluntario eta kontratatupeko pertsonalarekin batera erabakitzen dugu erakundearen estrategia.

www.mugarikgabe.org

Zure partehartzeari esker jarraitzen dugu lanean

Eremuak eta parte hartzeko moduak

- Diruz laguntzen duten bazkideak
- Ekimenetan parte hartzen duten boluntarioak:
 - Bazkideen batzordeetan eta hileroko batzordeetan parte hartzea
 - Lan taldeetan parte hartzea:
 - Garapenerako sensibilizazio eta hezkuntza taldea.
 - Garapen proiektuen taldea.
 - Kudeaketa eta administrazio taldea.
 - Genero taldea.
 - Herrialdeetan parte hartzea.

Dohaintzak

- Urteroko bazkide kuotaz gain, nahi baduzu dohaintzak ere egin diezazkigukezu, bai proiektu jakin bat bultzatzeko, bai giza garapen ekitatibo eta iraunkorraren alde egunero egiten dugun lana sustatzeko.

Jakinarazi nahi dizuegu, Mugarik Gaberi egindako ekarpenak errenta aitortzearen bidez kantzekoak direla.

Dirua sartzeko:

EUSKADIKO KUTXA - 3053 0083 22 0830701234



MUGARIK GABE

O.N.G.D. / G.G.K.E.

Declarada de utilidad pública

www.mugarikgabe.org

Hogei urte hauetan bazkideen eta diru-emaileen laguntza eskertzen dugu, baita Mugarik Gaberen egunero lanean Euskadiko Kutzaren kolaborazioa ere.

Zure lankidetzari esker dihardugu lanean / Tu colaboración hace posible que sigamos trabajando

Zure lankidetzari esker dihardugu lanean
Tu colaboración hace posible que sigamos trabajando

Izen deitura / Nombre y apellidos: _____
e-mail: _____ NAN / DNI: _____

Jaiotze data / Fecha de nacimiento: _____ Lanbidea / Profesión: _____

Helbidea / Dirección: _____ Herria / Población: _____

P.K. / C.P.: _____

Banku edo Aurrezki Kutza Entidad

<input type="checkbox"/> Bulegoa Oficina	<input type="checkbox"/> Kontrol Control	<input type="checkbox"/> Kontu Zbkia. N° Cuenta	<input type="checkbox"/>
--	--	---	--------------------------

edo nahi duzun zenbatekoa / o el importe que desees:

<input type="checkbox"/> 10 euro hilean 10 euros al mes	<input type="checkbox"/> euro hilean euros al mes	<input type="checkbox"/> euro hiruhilabetean euros al trimestre
<input type="checkbox"/> euro sei hilabetean euros al semestre	<input type="checkbox"/> euro urtean euros al año	

Nire kuota urteroko eguneratu nahi dut / Deseo actualizar mi cuota cada año: %5a un 5% %10 un 10% % un % urteko KPI el IPC anual

Hurrengo PFEZren zergarinketarako diru laguntzetako ziurtagiria jaso nahi dut / Deseo recibir el certificado de donación para la desgravación en el próximo IRPF

Sinadura / Firma _____

DONACIONES / DOHAINTZAK
Caja Laboral Popular 3035 0083 22 0830701234

BILBAO Oquendo Vicente Garamendi 5, Lona - 48008 ■ Tel. 944 15 43 07 / Fax. 944 156 796 ■ bilbao@mugarikgabe.org
DONOSTIA Txerria, Bago 1, 3 acceso - Egitia 20012 ■ Tel. 943 44 69 77 Móvil: 656728598 / Fax. 943 445 977 ■ gipuzkoat@mugarikgabe.org
GASTEIZ Casa de Asociaciones "Itiner" Plaza Zabaltzuri, s/n - Anaxia Auzoa 01003 ■ Tel. 945 27 73 86 ■ arabam@mugarikgabe.org





Guatemala

Naziarteko lanbidetazk Herri Indigena eta emakume antolatuekin



Guatemalak azken urteetako dinamikari eutsi dio. Aurten, ordea, azken hiruhilekoan, hauteskundeak izan dira, eta eskuineko militar batek eskuratu du boterea, botoen %55aren babesaz. Erdialdeko Amerika prozesu historiko berrien aurrean dago. Diktaduren biktima izateko arrisku handia du. Oraingoan hauteskundeak abala duten diktadurez ari gara. Esan bezala, fenomeno berria dira; tresna demokratikoen bidez, bada, erregimen militarrek legitimatzen dira.

Garaipen horrek berregituraketa neomilitarra dakar. Armadak estatua eta gobernua kudeatu eta kontrolatuko ditu. Are gehiago, kontuan hartu behar da Otto Perez Molinaren ordezkatzen duen sektorea iraganeko errepresio-etaparekin harremana duela. Horrek esan nahi du konstituzionaltasunera itzultzeko prozesuan krisi sakona sortu dela.

Hauteskunde prozesuan parte hartzen duten beste eragile batzuen presentzia ere nabaria da hala esparru legaletan nola legez kanpokoetan. Oligarkiaren talde tradizionalak, hazten ari diren enpresarien taldeak, krimen antolatuek eta narkotrafikoak harremana dute gaur egun botere judizial, exekutibo eta legegileko estratu nagusiekin.

Guatemalako gizarteak antolatzeko eta mobilizatzeko duen gaitasunari dagokionez, paradoxa handia dago. Batetik,

gizartearen eta komunitateen mobilizazioa gero eta handiagoa da; milioitik gora parte-hartzaile izan dituzten 70 herri-kontsulta baino gehiago antolatu dira eta baliabideen esplotaziorik gabeko eskualdeak eratzen hasi dira. Bestetik, ordea, mugimendu hori ez da hauteskundeetan islatu. Izan ere, ez da ezkerreko erreferente politiko berririk agertu, eta ezkerreko alderdiek antzinako parametroekin jarraitzen dute eta euren aldarrikapenetan ez dituzte kontuan hartzen gizartearen borroka berriak. Ezkerreko alderdien ordezkaritza txiki-txikia da oraindik; horrek esan nahi du, bada, gizarte-mugimenduek eta ezkerreko alderdiek ez dutela elkar ulertzen.

Itxaropen handia dago gizarte-mugimenduaren aurrerapausoetan, batez ere indigenei eta feministei dagokienez, oinarri-oinarririk abiatuta proposamen alternatiboak eta askatzaileak eraikitzen ari dira-eta. Eragiten dieten garapen-proiektuei aurka egitea eta lurraldetasuna, horra hor indigenen borrokaren printzipioak, alderdi horiek askatasunari eta gizabanakoen duintasunari zuzenean lotuta daude-eta.

Guatemalako emakumeen mugimenduak aurrerapauso kualitatiboak eman ditu bere izaera definitzeari eta mugimenduaren ikuspegia ezartzeari dagokienez. Proiektu eraldatzaile berriak sortzeko eta gizartea beste modu batez egituratzeko ahalmen handia du. Bizitzaren eta ongizatearen alde borrokatzen jarraitzeko ate berriak irekitzen ari dira, beraz, esparru guztietan.



Mugarik Gabe erakundearen lana Guatemalan

Mugarik Gabe erakundeak aipatutako proiektuei lagundu die aurten. Lankidetzatik abiatuta, testuinguru horretan kokatu behar dugu, botere alternatibo berriak eraikitzen laguntzeko indarra baliatuta, eta betiere askotariko gizarte-mugimenduak, komunitateak eta lurraldeak aintzat hartuta.

Behar-beharrezkoa da komunitateetako eta lurraldeetako artikulazioan sakontzen jarraitzea eta botere autonomiko berriak eratzea. Azken batean, paradigma berriak sortzeaz ari gara, protagonismoa emateaz sekula protagonista izan ez direnei.

Ildo horretan, bada, bertako bazkideekin egindako lan jarraituaz gain, aurten Genero Ikasketa eta Feminismoari buruzko II. Topaketa Mesoamerikarrearantz parte hartu dugu modu aktiboan, lan- eta interakzio-sareak sendotzea eta indartzea erronka gisa hartuta. Topaketa horretan gure ikuspegia partekatu dugu, lankidetzaz eraldatzailea aurrera eramateak duen garrantzia azpimarratuz eta mugimendu feministaren eta nazioarteko elkartasunaren arteko aliantza lehenetsiz genero-ekitatearen aldeko borrokarako estrategia gisa.

Genero Ikasketa eta Feminismoari buruzko II. Topaketa Mesoamerikarra. Hamarkada bateko aurrerapenak eta erronkak: 2001-2011. Guatemalako Hiria, 2011ko maiatzak 4, 5 eta 6 Mahai-ingurua: "Mugimenduen topaketa eta haien arteko elkarriketa:gizartea eraldatzeko proposamenak eta estrategiak artikulatzea"



Kuba

Naziorarteko lankidetzeta: Kuba

Mundu osoan bezalaxe, Kuban ere nabari da nagusi den eredu kapitalista jasaten ari den egiturazko krisia. Krisi horrek ekonomiari, finantza-arloari, ingurumenari eta energia-arloari eragiten die. Horretaz gain, Ameriketako Estatu Batuak irlari ekonomiaren, merkataritzaren eta finantzaren arloetan ezarrita dion blokeoak bere horretan dirau. Iragan otsailaren 7an, 50 urte bete ziren blokeoa modu formalean indarrean sartu zenetik; zehazki, 1962ko otsailean izan zen. Hona hemen, besteak beste, egoera horrek irlan eta haren garapenean izan dituen ondorioak 2010eko martxoa eta 2011ko martxoa bitartean, zenbakitan islatuta: 120.300.000 dolar elikagaien sektorean; 15 miloi dolar osasun publikoaren sektorean (batez ere, urruneko merkatuetara jo behar dutelako materialak, sendagaiak eta mota guztietako ekipoak eskuratzeko) eta 82,5 milioitik gora oinarritzko industriaren sektorean. Urte guzti hauetan zehar ikusi denez, elikagaien eta osasun publikoaren sektoreak dira blokeo-politikaren helburu nagusiak.

Hala ere, eta baldintza guztiak aurka izan arren, Kubako ereduaren sendotasuna dela medio, herrialdeko Giza Garapenaren Indizea 51. postuan kokatu da 2011n zehar, kontuan hartuta 187 herrialdetako datuak biltzen direla. 2005az geroztik, indize horrek bilakaera positiboa izan du. Are gehiago, azken hamarkadan zehar hazkunderik handiena izan duen indizea dauka herrialdeak. Horiek horrela, Kubak Giza Garapenaren Indize altua duten herrialdeen artean dago, Latinoamerikako eta Karibeko

batez besteko indizearen gainetik eta are Ameriketako Estatu Batuen aurretik jaiotze-uneko bizi itxaropenari dagokionez (78,5 urte AEBetan eta 79,1 Kuban).

Testuinguru ekonomiko horretan, eta Kubako gizarte-ereduaren iraunkortasuna helburu, 2011. urtea garrantzitsua izan da eredu eguneratzeko bidean. Iragan urteko apirilean, eztabaida zabal baten ondoren, ildo ekonomiko eta sozialak onartuta amaitu zen Kubako Alderdi Komunistaren VI. Biltzarra. Ildo horiek onartuta Kubako eredu ekonomikoa eguneratu nahi da, eredu sozialistaren jarraipena eta atzeraezintasuna eta herrialdearen garapen ekonomikoa bermatzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Ildo horretan, bada, hartutako erabakiek ekonomia zabaltzeko sekula ez bezalako asmoa islatzen dute, egungo garai eta egoeretara egokitzea xede, baina iraultzaren espirituari eutsiz.

Hona hemen, besteak beste, aipatutako ildoen barruan jasotako aldaketak: landu gabe dauden estatuaren lurrik usufuktu-kontzeptupean ematea pertsona fisiko edo juridikoei, modu arrazionalen eta jasangarrian erabil ditzaten (neurri horren bidez, besteak beste, nekazaritza-sektoreko langileei bultzada eman nahi zaie); norbere kontura lan egiteko aukera zabaltzea beste 181 jardueratara eta herrialdeko lan-sektorea berrantolatzeke prozesua aurrera eramatea, frogatutako egokitasun-printzipioa oinarri, puztutako plantillekin eta jokamolde






Kuba

paternalistekin amaitzeko. Halaber, VI. Biltzarrean lan-kronograma egiteko beharra zegoela adierazi zen, onartutako ildoak 2015a baino lehen gauzatuko zirela bermatze aldera.

Horiek guztiak horrela, aldaketak motelak badira ere eta iaz onartutako ildoak oraindik implementazio-fasean badaude ere, Kuba aldatzen ari da. Kubako eredu egokitzea eredu horrek bizirik jarrai dezan, horra hor egindako aldaketa. Apustu hori ikusita, ikusi beharko da implementazioak arrakasta ote duen eta eredu kapitalistaren alternatiba izan nahi duen eredu nola garatzen den, are gehiago egun, mendebaldeko herrialdeek, krisia aitzakia gisa hartuta, lehentasuna ematen diotenean bankuetako zenbakiak koadratzeari, gizabanakoak, haien ongizatea eta herrialdearen etorkizuna bera ahaztuta.

Naziorarteko lankidetzaz: Kuba



Mugarik Gabe erakundearen lana Kuban



Mugarik Gabek, erakunde gisa, apustu hauek ditu: azukrearen industria birmoldatzea, elikadura-subiranotasunaren bidean aurrera egitea eta genero-ikuspegia txertatzea gure bazkide diren elkarteetan eta haien parte diren milaka kooperatibetan. Modu horretan, landaguneetako kultura matxista errotik aldatu nahi dugu, eta ekitatean eta emakumeen aldeko justizian oinarrituta beste kultura bat sortu. Gure aburuz, herrialdeen elikadura-subiranotasuna apustu politikoa da, ingurumenaren aldetik justua den alternatiba sozial bat. Hala, bada, iparraldeko eta hegoaldeko nekazari-erakundeen artean aliantza teknikoak eta politikoak sortzeko bidean lan egiten dugu, lurra, nekazarien bizitza, eta gizakiak elikadura eskuratzeko duen eskubidea akabatzen dituen nekazaritza- eta elikatze-sistema industrial eta globalizatuaren ondorioak jasan behar baitituzte.

**2011. URTEAN ONARTUTAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO PROIEKTUAK**

Erakundea	LOKIAN TOKIKO bazkidea	Herrialdea	Proiektua	Onartutako diru-kopurua
Gipuzkoako Foru Aldundia	ANAP	Kuba	Placetaseko landa-komunitateetan genero-berdintasuna indartzeko eta elikagaien segurtasuna hobetzeko programa	136.290,50
Bizkaiko Foru Aldundia	ANAP	Kuba	Genero-berdintasuna sustatzea Camajuani udalerriko (Santa Clara) kooperatiba- eta nekazaritza-sektorean, elikadura-subiranotasunaren bidean aurrera egiteko modu gisa. II. Fasea	146.877,00
Bilboko Udala	CEFREC	Bolivia	Boliviako emakume indigenei ikus-entzunezko komunikazioari buruzko prestakuntza aurreratua emateko programa	111.878,00
AECID	CEFREC	Bolivia	Indigenen gaitasunak eta eragina indartzea, hainbat nazioz osatutako estatua ezartzeko bidean	282.755,00
Eusko Jaurlaritza	CEFREC	Bolivia	Eskubideen, generoaren eta komunikazioaren arloan lidergo indigenarako prestakuntza ematen duen eskola indartzea	503.428,89
Getxoko Udala	Axayacalt	Nikaragua	Emakumeei garapen pertsonalerako eta ekonomikorako aukerak emanez, atea irekiko diogu gizarte aldaketari	29.900,00
Eusko Jaurlaritza	Xochilt Acalt	Nikaragua	Garapen sozioekonomikoari eta herritarrak gizarteko eragile izan daitezen bultzatzeko prozesuei laguntzea	445.325,41
Eusko Jaurlaritza	Las dignas	El Salvador	Emakumeak gaitzea, benetako berdintasuna lortzeko baldintzak sortuz	292.474,63
La Caixa	Xochilt Acalt	Nikaragua	Enpresa-garapen jasagarria bultzatzea eta Larreynagako nekazari-familien bizi-baldintzak hobetzen laguntzea	355.000
Bizkaiko Foru Aldundia	UNAMG	Guatemala	Gizarte-sentsibilizazioa aurrera eramatea Guatemalan, gatazka armatuan zehar sexu-indarkeria jasan zuten emakumeentzako justizia bilatzeko	129.483,00
Programa	ASECSA	Guatemala	Herri-boterea eraikitzea, Guatemalako ipar-ekialdeko lurraldea defendatzeko	978.078,26
Bilboko Udala	Sector de mujeres	Guatemala	Garapen-lankidetzarako paradigma berriak eraikitzea S-S ikuspegian oinarrituta	55.553,40
Gasteizko Udala	CRIC	Kolonbia	Caucako gatazka armatuan biktima diren indigenak babestea, defendatzea eta agerian uztea	64.951,00
Gasteizko Udala	Mugarik Gabe	EH	2011: Giza eskubideak eta zigorgabetasuna Kolonbian	2.490,00
Donostiako Udala	MQC	Kolonbia	Emakumea izateari lotutako praktikak eta kultura adierazpenak aldatzea Medellin hirian	59.995,13
Bizkaiko Foru Aldundia	MQC	Kolonbia	EFLACen XII. edizioan laguntzea	17.099,00
Eusko Jaurlaritza	CRIC	Kolonbia	Hezkuntzaren administrazioa indartzea Caucako lurralde indigenetan, Indigenentzako Hezkuntza Sistema (SEIP) ezarrita	203.147,46
Eusko Jaurlaritza	OIA	Kolonbia	Antioquiako herri indigenen autonomia indartzea	906.727,21
			GUZTIRA	4.721.453,89



El Salvador

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

Urte hasieran, 2010. urtearen amaieran onartutako lege bat argitaratu zen aldizkari ofizialean: EMAKUMEEI INDARKERIAK GABEKO BIZITZA ESKAINTZEKO LEGE INTEGRAL BEREZIA, hain zuzen. Halaber, polemika piztu zen Julia Evelyn Martínez, Emakumearen Garapenerako El Salvadorreko Institutuko (ISDEMU) zuzendari exekutiboa, kargutik kendu zutelako. Bestalde, martxoaren 17an EL SALVADORREKO EMAKUMEEEN BERDINTASUNAREN ETA EKITATEAREN ALDEKO ETA HAIEN AURKAKO BAZTERKERIAREKIN AMAITZEKO LEGEA onartu zen. Hain zuzen, Concertación Feminista Prudencia Ayala taldeak aurkeztu zuen Lege hori Legebiltzarraren aurrean 2010eko martxoaren 8an

Ildo horretan, bada, iragan urtean zehar beste alderdi hauek nabarmendu daitezke generoen arteko desberdintasunaren arloan:

EMAKUMEEEN AURKAKO INDARKERIA: DESBERDINTASUNAREN ETA BAZTERKETAREN ISLA.

2011 zehar, 13.970 emakumek jasan zituzten genero-indarkeriari lotutako delituak. Hain zuzen, 2011 oso urte odoltsua izan da emakumeentzat. Esan bezala, eta Polizia Nazional Zibilak emandako datuen arabera, 13.970 emakume izan ziren hainbat motatako delituen biktima. Horien artean, nabarmentzekoa da, familiaren barruko 1.818 indarkeria-kasu egon zirela; 3.025 emakumek hainbat motatako lesioak jasan zituztela eta 1.400 neska, emakume eta nerabe baino gehiago bortxatu zituztela. Delitu horietan guztietan, emakumeen elkarrean kezka nagusia da erasotzaileak zigorgabetasun osoz aritzen direla. Izan ere, delitu gehienek kasuan, errudunak ez dituzte harrapatzen. Giza Eskubideen Defentsarako Bulegoak feminizidioari buruz egindako txosten berezian jasotako datuen arabera, eta Errepublikako Fiskaltza Nagusiak aztertutako kasu-kopuruarekin bat, kasuen %5 soilik epaitu da, eta gainerako %95 ez da ezta auzibidean ere jarri. (Iturria: La Boletina de ORMUSA, 12. zk, 2011)

SEXU- ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK: ESKUBIDEAK UKATZEA.

Abortuari dagokionez, lege guztiz murriztailea duen munduko bost herrialdeetako bat El Salvador da. Jarrera zigortzaile horren ondorioz, neskek, nerabeak, gazteak eta emakumeak euren haurdunaldiaren aurrera jarraitzea behartzen dituzte. Haurdunaldi horiek bortxaketaren ondorio izan daitezke, edo haien osasuna eta bizitza arriskuan jar ditzakete. Horrek, bada, kalte larriak eragin diezaietke gorputzean eta are buru-osasunean eta osasun emozionalean, eta hiltzeko arriskua ere izan dezakete.

Kode Penalean 1996an egindako erreformaren bidez, El Salvadorren abortua guztiz zigortuta dagoela xedatu zen; izan ere, erreforma horretan, adierazleen sistema ezabatu zen. Geroago, Errepublikako Konstituzioaren 1. artikulua ere aldatu zen, eta gizakia sortzetik beretik dela gizaki ezarri zen.



Abortua guztiz zigortzearen ondorioz, Osasun Sistemak eta Errepublikako Fiskaltza Nagusiak osasun-zerbitzuetara jotzen duten emakumeei jazartzen diete, oro har, eta abortatu izanaren susmoa dute euren gainean. Hartara, emakumeek errugabetasun-presuntzioak aitortzen dien funtsezko bermea galdu dute. Halaber, medikuek zirt edo zart egin behar dute; aukera juridiko faltsu baten aurrean daude. Uste dute, mota horretako kasu bat ezagutuz gero, pazientea salatzea behartzen dituela legeak. Hori eginez gero, baina, lanbidetako sekretua hautsiko lukete eta mediku gisa duen konpromiso etikoa urratu. Horiek horrela, artatu dituen medikuak berak salatu ditu emakume asko, eta, horrela, ospitaletik atera bezain azkar kartzelara eraman dituzte, abortu-delitua edo are hilketa leporatuta.

2011ko apirilera 9 emakume Abortu Terapeutiko, Etiko eta Eugenesikoaren aldeko El Salvadorreko Herritarren Taldeak laguntza legala eman die kasu horiei. Dena den, sistema judizialean horrelako kasu gehiago dago, baina ez dago zifra ofizialik., gazteak gehienak, epaitu zituzten abortua edo hilketa leporatuta. Horietako batzuei 4 eta 30 urte bitarteko kartzela-zigorra jarri diete. Kasu askotan, artatu ez diren erditzeak izan dira, edo higie-ne baldintza txarretan egindakoak, edo are bat-bateko abortuak. Emakume gehienak, gainera, pobreak dira. Halere, Errepublikako Fiskaltza Nagusiak emakumeen aurkako jazarpenak eta prozesu judizialak abiarazi ditu, baimendutako abortu delitua egotzita.

Testuinguru politikoa eta sozioekonomikoa

Bake Akordioak sinatu zirenetik lehenbiziko aldiz ezkerreko gobernua du El Salvadorrek, eta haren kudeaketan sartuta



El Salvador

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

dago bete-betean. 2009ko martxoan egindako hauteskundeetan FMLN-k ARENA eskuineko alderdi ofizialari irabazi zion; eskuineko alderdi horrek 20 urte zeramatzan herrialdeko gobernuan. Jokaleku politiko berri horretan, bada, itxaropenak piztu ziren herritarren gehiengoarengan, gaur egungo presidente Mauricio Funesek kanpainan zehar egindako promesek bultzatuta. "Benetako" aldaketak espero zituzten, baztertuta zegoen herritarren gehiengoarentzat onuragarriak izango zirenak. Aitzitik, 2011n, FMLN-k gobernu eskuratu eta bi urtera, aukera handiagoak eta bizi-baldintza hobekaldarrikatzen zituzten promesa horiek oso urrun geratu dira. "Langabeziari, bizitzaren kostuari, pobrezia, bazterketari eta garapenaren irabazi eta kostuen banaketan dagoen desorekari aurre egingo" omen zioten Gobernu Programa 2009-2014, FMLN, 2009., baina, horren ordez, herrialdeko giro soziala, politikoa eta ekonomikoa nahastu egin da, eta ondorioz, egoera larria piztu da: segurtasunik eza, indarkeria, pobrezia eta bazterketa nonahi.

Mauricio Funesen gobernuak bi urte bete dituenean, aurrerapausoak ere izan direla diote batzuek. Esate baterako, osasun-sistema hobetu da eta gobernuak herritar baztertuenen aldeko gizarte-neurriak hartu ditu, hala nola gasaren subsidioa. Subsidio hori orokorra zen apirilaren 1era arte. Gobernuak, batez beste, 150 milioi ordaintzen zizkien gasa inportatu eta merkaturatzen zuten enpresei; diru-kopurua hori, bada, enpresek gasari ematen zioten balioaren %63 zen <http://www.laprensagrafi.ca.com/economia/nacional/161500-subsidio-al-gas-propano-hastafebrero-de-2011.html>. Hala ere, gobernuak erabaki zuen 150 milioi horiek ez ematea gas-enpresei

eta horren ordez 8,5 dolar ematea miloi bat eta ehun familiarri (la Pág. de Maíz, 333. zk). Dena den, gobernuak subsidioen gaian aurrera eraman dituen politikak erosketasaskia delakoa garestitzea eragin dute. Adibidez, lehen aipatu bezala, gas propanoaren subsidioa emateko, egun, diru-transferentzia zuzena egiten zaie herritarrei, energia elektrikoaren kontsumoari lotutako parametro bati jarraituz. Neurri horrek bada, familien ekonomiari eragin die, aurrez prestatutako elikagaien prezioa igo baita. Ondorio horiei aurre egiteko asmoz, gobernuak hainbat neurri iragarri zituen, El Salvadorreko familien "egoera ekonomikoa hobetzea helburu". Horien artean, nabarmendu behar da gutxieneko soldata %8 hazi zela sektore guztietan. Gai hori gobernuari egiten zaion kritika nagusiarekin lotuta dago, proletarizazioa delakoa edo erdi-mailako klaseak zigortzea leporatzen baitiote. Hori da, hain zuzen, Patricia Iraheta "Consideraciones sobre dos años de gobierno compartidas en Patriaexcata" idatzian jasota duena. Hain zuzen, erdi-mailako klasea ez dago gobernuaren lehentasunen artean eta uraren, energia elektrikoaren, gasaren eta abarren gaineko subsidio orokorrak kentzeko neurriek zuzenean eragiten diote gizarteko talde horri. Gobernuarekiko desadostasuna piztu duen beste alderdietako bat ideologiaren kontua izan da. Izan ere, askotariko aliantzak bildu dituen gobernuak da, hainbat adierazpide ideologikoren isla, eta, batez, ere, politika ekonomikoari dagokionez. Gai hori, hain zuzen, zentroko eta eskuineko sektoreen eskuetan dago.

Horiek guztiak horrela, bada, hauteskunde kanpainaren atarian amaitu da urtea, 2012ko martxoan diputatuak eta udaletako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak egingo dira-eta.

Mugarik Gabe erakundearen lana El Salvadorren

Las Dignas erakundeari laguntzeko apustuari eutsi diegu.

Erakunde politiko feminista da, eta haren lanak ardatz hauek ditu: generoagatiko bazterketa-kasuak ezagutaraztea; emakumeen antolaketa-prozesuak indartzea eta haiei laguntzea, mendekotasunari aurre egiteko harremanetan eta aukeretan aldaketak egin ditzaten, eta politika publikoen esparruan esku hartzea. 2011n, erakunde horretako Laguntza Integraleko arloari ematen zaion babesa zehaztu da. Arlo horrek, bereziki, indarkeria-egoerak desagerrarazi nahi ditu eta indarkeriarik gabeko bizitza askea eskubide sozial gisa aldarrikatzeko lan egiten du. Programa horren barruan, halaber, aurrerapausoak egin nahi dira emakumeen eskubide ekonomikoak, sexu- eta

ugalketa-eskubideak eta emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza askea izateko duten eskubideak aldarrikatzeko bidean.

Bestalde, Concertación Feminista Prudencia Ayala taldeari laguntzen jarraitu dugu, berdintasunaren aldeko legea onartzeko eta geroko inplementazioa bultzatzeko egin duen lanean. Horretarako, laguntza finantzarioa eta instituzionala eman diegu, eta El Salvadorreko diputatuei gutunak bidaltzen lagundu diegu, legea onar zezaten eskatuz.

Halaber, bazkide berria dugu: Colectiva Feminista para el Desarrollo Local erakunde. Urte batzuk dira haiekin harremanetan egon garela, baina 2011n, azkenik, bazkide izango zela erabaki genuen. Horrela, haien lan-prozesuei lagunduko diegu, hainbat proiekturen bidez.



Nikaragua

Nazioarteko lanbidetzak emakume antolatuekin

2011n zehar, Nikaraguako egoera soziopolitikoak baldintzatu duen gertaera lehendakaritzarako hauteskundeak izan dira. Azaroaren 6an egin ziren. Oposizioa zaituta aurkeztu zen. Hainbat jatorritako sektore politikoek Alianza Partido Liberal Independiente (PLI) delakoa sortu zuten. Haren helburu nagusia Daniel Ortegarri boterea kentzea zen; hautagaitza berriro aurkeztuta, Konstituzioan ezarritakoa urratzen zuela eta Estatuko botere guztiak modu totalitarioan kontrolatzen zituela leporatu zioten. Horiek horrela, inkestak alde zituela, gizarte-programa zabala eskainiz eta erakundeak modu totalitarioan kontrolatzen zituela zioten salaketei aurre eginez, Daniel Ortega hauteskundeetara aurkeztu zen, lehendakaritza berri eskuratzeko asmoz. Haren aurkaria PLI aliantza zen, 80 urteko Fabio Gadea buru zuela. Radio Corporación irrati-katearen jabea, itzalean egon zen, kanpaina modu aktiboan parte hartu gabe. Hain zuzen, irrati hori sandinisten aurkako talde armatuen (contra) hedabide nagusia izan da. Aliantza horretan askotariko sektoreak bildu ziren: eskuin-zentroa; Movimiento de Renovación Sandinista delakoa (90 hamarkadan bereizi ziren FSLNtik); enpresa-sektoreak, Eduardo Montealegre buru zutela eta Movimiento Autónomo de Mujeres emakumeen mugimendua. Jokalekua polarizatua zegoen. Oposizioak "diktadura" aipatzen zuten; ofizialistek, berriz, eskuineko zein ezkerreko alderdietatik zetorren kritika-zantzu oro "inperioaren morroi ziren agenteek egina" zela zioten. (Iturria: Periódico diagonal, 160. zk., 2011)

Gizarte-programetan autoritarismoa, "diktadura" eta murrizketak baliatzen dituela leporatu zaió Gobernuari. Hala ere, aurrerapen batzuk ere egon direla aitortzen dute aditu batzuek. Patricia Orozco kazetari eta militante feministak, esaterako, dio aurrerapen garrantzitsuenak osasunaren eta hezkuntzaren arloetan izan direla. "Gobernu neoliberalen garaian, ospitale publikoek atal pribatuak zituzten; hori herritarren gehiengoaren kalterako zen. Horrekin amaitu da, eta ospatu beharrekoa da", dio Orozcok. Aurreko gobernuarekin, hezkuntzarako aurrekontu-falta zegoenez, gurasoek eskola publikoei eusteko diru-ekarpenak egin behar zituzten. Boterea eskuratu zuenean, Fronte Sandinistak hartu zuen lehenengo neurrietako bat izan zen kuota "boluntario" hori kentzea. Orozcoren esanetan, neurri horrek kontrako ondorioak izan zituen: "Gurasoen laguntzarik gabe, eskola batzuek porrot egin zuten, beharrezko inbertsioa falta zitzaielako". (Iturria: Periódico diagonal, 160. zk., 2011)

Inork ez du zalantzan jartzen, ordea, 2005az geroztik hona pobrezia eta muturreko pobrezia mailak pixkanaka-pixkanaka murriztu egin direla Nikaraguan. (Iturria: Periódico diagonal, 160. zk., 2011)

Hauteskunde-kanpaina zehar, gertakizunik nabarmenena zera izan zen: Gobernuak baliatu zituen askotariko formulak PLI aliantzaren hautagaitza desegituratzeko. Daniel Ortegarri aurre egin diezaiokeen hautagai bakarra zela uste zuten. Estrategia horietako bat izan zen Hauteskunde Kontseilu Gorenak zalantzak adierazi zituela PLIren zerrenden gainean, eta zerrenda horiek inhibitzeko eskatu zuela. Azkenean, adierazi zuen PLI aliantzako hautagai guztiei utziko zirela aurkeztu, baina gerta zitekeela behin hauteskunde-prozesua igarota aliantzako diputaturen bat inhibitzea eta, ondorioz, ezin izango zuela akreditaziorik jaso. Egun horietan, bada, Dante Caputo, Amerikako Estatuaren Erakundeko berriemaile berezia iritsi zen Nikaraguara. Haren hitzetan, inhibitzioen kontu horrek zalantzak sortzen zituen herritarrengan, bai eta hauteskunde-prozesu beraren gainean ere. Halaber, azaroaren 6an nazioarteko begiralerik ez bidaltzea planteatu zuen, beharrezko baldintza teknikoak betetzen ez zirela argudiatuta. Bitartean, herritarrek ikusten zuten Frontearen ostean, Fabio Gadearen hautagaitza zela indartsuena. Hala eta guztiz ere, argitaratutako inkesta batzuen arabera, bigarren indarrik bozkatuena, ziurrenik, Arnoldo Alemanen Alderdi Liberala izango zen, eta hirugarrena, berriz, Fabio Gadearena. Hortaz, herritarrek uste zuten motibazioa kentzeko estrategia bat zirela inkesta horiek. Laburbilduz, hauek izan ziren hauteskunde-kanpainako alderdirik gatazkatsuenak:

- Arazoak egon ziren nortasun-txarteekin. Herrialdeko eskualde batzuetan, gatazkak sortu ziren, pertsona batzuek ezin izan zutelako euren nortasun-txartela eskuratu. Halaber, kasu batzuetan, Hauteskunde Kontseilu Gorenaren ordean, Fronteak berak banatu ditu txartelak.






Nikaragua

Nazioarteko lanbidetak emakume antolatuekin

- Inhibizio posibleak PLIn.
- Hauteskunde-prozesua gardena izan dela berma dezaketen nazioarteko begiralerik ez da egon. Horrek sortu duen sentipena zera da: lortutako emaitzak gorabehera, Ortegak ahal duen guztia egingo duela botereari eusteko.
- Hauteskunde egunean matxinadarik gertatuz gero, armada kaleetara bidaliko zuela mehatxatu zuten Gobernuak.

Beste gai bati helduz, Indarkeriaren aurkako Emakumeen Sareak, "Acabar con la impunidad para vivir libre de violencia" kanpainaren barruan, honako hau adierazi du urteko txostenean:

lazko datuekin alderatuta, 2011n zehar murrizketa txiki bat egon dela ikusi bada ere, Indarkeriaren aurkako Emakumeen Sareak 76 emakume hil zirela erregistratu du; 2010ean, hain zuzen, 89 izan ziren. Indarkeriaren aurkako Emakumeen Sareak jarraitzen du salatzen herrialdeak badituela lege on batzuk, baina ez direla behar bezala aplikatzen. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan, justiziara iristeko sistema osatzen duten erakundeek protokolo bat dute, baina emakumeek emakume-taldean laguntza dutenean edo elkarte horiek presioa egiten dutenean soilik aplikatzen dute. Adierazi dute Emakumeen eta Haurren Komisarietatek hobeto jardun behar dutela. Izan ere, erasotzaileei azkar-azkar erantzuten diete, eta horrek zigorgabetasuna eragiten du. Biktimak, hortaz, bi aldiz



dira biktima, eta justiziara iristeko eta laguntza jasotzeko bidea kalbarioa da haientzat. Hori gutxi balitz, ofizialen jarrerak ere ez du laguntzen, beti baitaude bitartekaritzaren alde.

Nabarmendu behar da emakumeen aurkako indarkeriari buruzko benetako datuen azpierregristo garrantzitsua dagoela. Halaber, delituak ez dira behar bezala tipifikatzen edo sailkatzen, eta horrek arazoaren larritasuna eta munta ezkutatzen ditu. Zifrez harago, bada, zigorgabetasuna nagusi da, eta horren ondorioz, emakumeen aurkako hilketek bere horretan jarraitzen dute.

Mugarik Gabe erakundearen lana

Gauzak horrela, bada, landaguneetako emakumeen elkarteei laguntza ematen jarraitzen dugu. Ikuspegi integrala lagun, emakumeak, indibidualki eta talde gisa, jasaten duten bazterketa eta jazarpena gainditzeko borrokan ari dira.

Azpirarratzekoa da Xochilt Acalt zentroak 20. urteurrena ospatu zuela 2011n. Zorionak! Hogei urte igarota, Xochilt Acalt (Malpaisillo) zentroak aurrera eramaten dituen programa guztiei laguntzen jarraitzen dugu. 2011n, besteak beste, emakumeen garapen sozioekonomikorako prozesuak babestu genituen, eta udalerriko herritarrek gizarteko eragile izan daitezela prestatzeko egitasmoei lagundu genien. Hori guztia, bada, ekonomia arloan, osasun arloan eta tokiko garapenerako eskolan aurrera eramaten duten lanaren bidez lortu da. Tokiko bazkide gisa, Masayako Axayacatl Emakumeen Elkarteari laguntza ematen hasi gara. Hasteko, landaguneetako emakumeen artean enpoderatze ekonomikoa eta pertsonala bultzatzeko prozesuak babestu ditugu.

Veinte aniversario XOCHILT-ACATL	hamar
Hogei urte ez da deus	hamar emakume
baina hogei emakumek gauza asko alda ditzakete	lehenengo hamarren txanda har
Hogei urte ez da deus	hamaika
baina hogei emakumek	hamaika emakume
iraultza egin dezakete	hamaika urte bete berriari Andrakintza saria eskura
bat	hamabi
emakume batek ilargiari begiratu zion	hamabi emakume
bi	dozena bat eta aurrera
bi emakumek bostekoa eman zuten	hamahiru
hiru	hamahiru emakume benetan merezi zuten zerbaitetan
hiru emakumek artilea ehundu zuten	hamalau
lau	hamalau emakume egunsentifira arte dantzan
lau emakumek hitzarmena sinatu	hamabost
bost	hamabost emakume inoiz baino sendoago
bost emakumek saltoa emon	hamasei
sei	hamasei emakume; baztertuta? ez horixe
sei emakume gizonetara esaten, zuekin jai!	hamazazpi
zazpi	hamazazpi emakume goxo-goxo, irri-irri
zazpi emakume, inoren morroi	hamazazpi emakume, zuegatik topa!
zortzi	hemeretzi
zortzi emakume	hemeretzi emakume, zuen indarra, gure eredu
ospatzeko janaria egosi	hogei
bederatz	hogei emakume
bederatz emakume	hogei komunitate
justiziaren alde	hogei urte
Maitasun osoz MUGARIK GABE erakundeko kideen partez.	hogei amets beteta
	baina oraindik gogotsu
	beste hogei betetzeko



Kolonia



Nazioarteko lankidetzak: Kolonia

hartuta eta baliabide naturalak erauzten dituzten enpresen presentzia. Horientzat guztientzat lurra harrapakina da, eta hainbat motatako eragileak gure lurraldeetara datoz, hemen gordetzen baitira aberastasun natural handienak: urrea, zilarra, petrolio, ura, koltana, zura eta abar. Monolaborantza bultzatu nahi dute, energia eta bioerregaiak sortzeko, eta horrek arriskuan jartzen du herri indigena gisa dagokien eskubide nagusia, lurra edukitzearena, hain zuzen. Halaber, euren existentzia eta etorkizuneko belaunaldia ere kolokan dago".

Europako eta Latinoamerikako 500 elkarte baino gehiago dago Europar Batasunaren eta Kolonbiaren artean Merkataritza Askerako Akordioa ezartzearen aurka. Akordio horrek gizarteko gatazkak eta desorekak handituko lituzke, eta giza eskubideen egoera okertu. Kolonbian, nekazariei, indigenei eta esklabo beltzen ondorengoei giza eskubideak urratuta kendu dizkieten lurretan inbertsioak egiten dituzten Europako enpresak bidegabekeria horren konplize izango dira. Erakundeek eskatu dute Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetako parlamentuetan gai hori eztabaidatzeko aukera bermatu beharko litzatekeela.

2011n, herri indigenak gobernuarekin elkarrizketatu ziren, politika publikoak eta neurri administratiboak modu adostuan erabakitzeke, hala nola Garapenerako Plan Nazionalen indigenen ikuspegia ere sartzea; Biktima Indigenen Lege Dekretua edo Auzitegi Konstituzionalak

Santosek giza eskubideen aldeko errespetua, gizarte-erakunde eta -mugimenduekin elkarrizketa eta gatazka armatuaren aitortza aipatu ditu oparotasun demokratikoa ardatz duen proposamenen. Uriberen gobernuarekin alderatuta, beraz, Santosen diskurtsoak aldaketa ekarri du. Hala ere, kontraesana ere bada, giza eskubideen urraketa-kasuak hazten ari baitira. Kolonbiak lehenengo postuari eusten dio lurralde barruko desplazatuen kopuru handiena duten munduko herrialdeen zerrendan. Somos Defensores programaren txostenaren arabera, giza eskubideak defendatzen zituzten 239 laguni eraso zieten Kolonbian 2011n zehar.

Gerra handitzea eta gatazka armatua gaiztotzea, bai eta estatuaren arretarik eza, horietatik dira herrien hondamendi fisikoa eta soziokulturala eta haien lurren desagertzea eragiten duten arrazoirik nagusiak. Herrialdearen hainbat eskualdetan gertatzen da, baina, batez ere, Cauca eta Antioquiako departamentuetan.

Santosen Meatzaritzaren Garapenerako Planak estatusunean jartzen ditu, bereziki, indigenen erakundeak, alde aurreko kontsulta librea eta informatua eskatzen du-eta. Hona hemen ONIC erakundeak herri indigenen egunaren harira argitaratutako komunikatua: "Eragile legalen eta legez kanpokoen interesak gure lurraldeak kontrolatzeko; Santosek iragarritako "lokomotorak", 2050erako garapena bilatzeko estatuko politiken itxura





Kolombia

Nazioarteko lankidetzak: Kolombia

eskatutako Bermeen Programa Nazionala. Dena den, prozesu horrek ez du balio izan hobekuntzak sartzeko herri indigenen giza eskubide indibidual eta kolektiboen bermean eta horiek baliatzeko moduan.

Bi urteren ondoren, gobernuak hasi da Auzitegi Konstituzionalak 2009ko 004 Autoaren harira emandako



agindua betetzen. Auto horretan, ezarritakoaren arabera, Berme eta Babes Planak sortu eta aplikatu behar dira desagertzeko arriskuan dauden herri indigenentzat. Herri indigenak proposamenak lantzen ari dira.

2011n zehar, bereziki garrantzitsua izan da Biktimei eta Lurrak Itzultzeari buruzko Legea onartzea, desplazatuei eta biktimei kalte-ordaina jasotzeko duten eskubidea aitortu baitzaie. Hala eta guztiz ere, lege horrek zalantza eta erronka ugari piztu ditu: herri indigenei ez zaie kontsultarik egin; 2 milio hektarea lur itzultzea proposatu da, baina CINEP programaren arabera, 6, 5 milio hektarea lur kendu dira; gobernuak lurra eskatzen dituzten biktimei eta haien erakundeei babes eman behar die, baina kontuan izan behar da 50 lider hil dituztela dagoeneko.



Mugarik Gabe erakundearen lana

2011n zehar, indigenen erakundeak 2010eko 2500 Dekretuan araututako hezkuntzaren arloko transferentzian lan egiten ibili dira, hezkuntzaren arloan autonomia eskuratzen hasteko. Mugarik Gabe erakundea prozesu horri babes eman ari da; horretarako, bada, hezkuntzari buruzko diagnostikoak egin ditugu Antioquian eta Caucan.

Halaber, CRIC Kontseiluak abian jarri duen Berezko Hizkuntzen Diplomatura babesten dugu, bai eta beste titulu batzuk ere, esate baterako: Agroekologia, Zuzenbidea eta Berezko Administrazioa.

Ama Lurraren Pedagogian Lizentziaturak Hezkuntza Ministerioaren aitortza lortu du. Antioquiako Unibertsitatearekin lanean ibili dira, esparru administratibora nola egokitu negoziatzen. Espezializazio-fasearekin amaitzen ari dira, eta 2012an promozio berri bati ekitea espero dute. Gobernu eta Administrazio Eskolari "Prestakuntza Politikarako Mario Domicó Eskola" deritzo orain. Eskola horrek emakumeen parte-hartzeari buruzko azterketa bat eraman du aurrera, eta hasi berri den promozioak babes handiagoa ematen dio emakumeen parte-hartzeari.

OIA erakundeak Toki Sakratuen Defentsarako Kanpaina eraman du erakunde publikoetara, eta gizarte

mugimenduen hainbat espazioetan ere zabaldu du. 2012an Kolonbian egingo da CLACPI behatokiak sustatutako Zinema eta Bideo Indigenaren Jaialdia. OIA erakundeak, antolatzaile gisa, zinema-erakusketa antolatuko du Medellin hirian. Erakusketako kategorietako bat, hain zuzen, toki sakratuei buruzkoa izango da. Jaialdi horrek, beraz, OIAk aurrera eramaten duen komunikazio-lanari bultzada ematen lagunduko du.

Mugarik Gabe erakundeak bazkide berria du Kolonbian: Corporación para la vida Mujeres que Crean. Mujeres que Crean taldearen bidez, babes eman diogu Kolonbian 2011ko azaroan egin zen Latinoamerikako eta Karibeko Topaketa Feministari. Halaber, proiektu bati heldu diogu, elkarlanean, gizona eta emakumea izateari buruz dugun ideia kolektiboa aldatzea helburu eta horretarako komunikazio eta kultura adierazpideak baliatuta.

Kolektiba Colombia taldeari dagokionez, nabarmendu beharra dago egin duten ahalegina Giza Eskubideak Defendatzen dituzten Pertsonak Aldi Baterako Hartzeko Programa abian jartzeko. Hiru lagunek parte hartu dute programa horretan; horietako bi Cauca indigenak dira. Giza eskubideek Kolonbian duten egoerari buruz sentsibilizatzeko eta politikariak horretaz ohartzeko hainbat jarduera eraman ditugu aurrera. Ildo horretan, bada, 2011ko uztailan, Eusko Legebiltzarrak 93/2011 Ez Legezko Proposamena onartu du, giza eskubideek Kolonbian duten egoerari buruz.



Bolivia

Nazioarteko kanbidetzak Herri Indigenekin



Bolivia aurrera daroan aldaketa prozesuaren batasunean eragin handiko urtea izango da 2011. "Gasolinazo" dekretuak eragindako manifestazioarekin hasi, TIPNIS krisialdiarekin jarraitu eta Batasun Hitzarmenaren hausturarekin amaitu zen pasa den urte zalapartatsua.

2010. urteko abenduaren 26an 0748 dekretuaren bitartez erregaien aldeko diru-laguntza publikoa kentzeko agindua eman zuen gobernuak. Hau dela eta erregaien prezioaren gorakada nabarmena ikusita (%70 eta %80 bitartekoa), eta honekin batera oinarritzko produktuen garestitzea ekarriko zuelakoan, jendea kalera protestaka irten zen. Sortutako presioa zela eta gobernuak dekretua alboratuz (2010eko abenduaren 31n) atzera egin behar izan zuen. Nahiz eta dekretua indargabetu 2011 urtearen lehenengo hilabeteak kale ekintzetan harrapatu zituen gizarte-eragileak Gobernuaren jokabidea ulertezina gertatzen zitzaizen hainbat erakundeei, batez ere "herriaren esanak betetzen agintzea"ren printzipioa apurtu izanagatik eta honekin batera gobernuak boterea ulertzeko eta erabiltzeko erak aldatzen ari zirela ikusita.

Bestaldetik ekainean Isiboro Secure-TIPNIS parke nazionala zeharkatuko zuen errepide bat eraikitzeko asmoaren berri plazaratu zuen Evo Moralesek. Honako erabakia eta hurrengo hilabetetan jasotako gertaerak

(poliziaren errepresio bortitzak barne) sekulako eragina izango zuten Batasun Hitzarmenarengan. Hauek bi aldetan banandu ziren eta agertutako aldeek gaurkoraino darraie. Alde batetik CIDOB eta CONAMAQ konfederazioak, garapena ulertzeko ikuspuntu indigena nagusia zutelarik, eta bestetik CSUTCB, CSCIB eta CNMCIOB-BS, garapena gauzatzeko ezkertiar paradigmatan oinarritzen zirelarik. Hauen arteko desadostasunak 2011. urtean zehar pil-pilean egongo dira eta gobernuarengan eragin handia izango dute. Gobernuak, konfederazioetan zabalitzen ari zen aldea eta prozesuarengan zekarren arriskua ikusita, atzera egin eta erreferenduma egiteko hitza ere eman egin behar izan zuen.

2011an gertatutakoa irakurtzeko bi era aurki ditzakegu. Alde batetik batzuk gertatutakoa prozesua bultzatzen ari diren gizarte-eragile eta politikoen arteko krisialdia estrukturaltzat hartuko dute. Hauxe da, aldaketa prozesua





Bolivia

aurrera eramaten ari diren erakundeen arteko aldeak estatu eredu berri bat eraikitzeko ezintasunaren ezaugarria delarik.

Beste batzuk berriz gizarte-eragileen eta alderdi politikoen arteko norgehiagoka, erdi epera eta epe luzerako irakurketa eginez, aldaketa prozesuan dauden kontraesanak gainditzeko tirabiratzat hartuko dute. Horrez gain eragile sozialek prozesuaren aldeko apustuaren alde gogotsu jarraitzen dutela eta gobernuaren garatzen ari den politikaren begirale sutsuak diren ezaugarri bezala hartuko dute. Hauxe da, nahiz eta gizarte-eragileek gobernuaren parte sentitu gobernutik datozen politika aldaketek prozesuaren kontra egiten badute ez dituztela inondik inora onartuko.

Nazioarteko kanbidetzak Herri Indigenekin



Mugarik Gaberen lana Bolivian

2011 urtean CEFRECEkin batera lan egiten jarraitu dugu komunikazioaren esparruan, nazioaniztun estatuaren sortze-testuinguruan herri indigenen parte hartzea indartzeko tresna dela ulertzen dugulako. 2009ko proiektuei besteak beste: "Eskubideen, generoaren eta komunikazioaren alorrean lidergo indigenarako Hezkuntza Orokorrerako Eskola" (Eusko Jaurlaritz), "Ikus-entzunezko komunikazioan Emakume indigenen gaitze aurreratua Bolivia hegoaldean eta amazonako ekialdeko eskualdean" (Bilboko Udala) eta "Giza-eskubideen arloan erakunde indigenen indartzea" (Gipuzkoako Foru Aldundia). 2010 eta 2011n aurkeztutako proiektuak gehitu behar ditugu: 2010 "Nazioaniztasun Komunikazio Agentziaren sendotzea" (Eusko Jaurlaritz) 2011: "Hedabideetan oinarritutako goi mailako formazioa" (Bilboko Udala), "Eskubideen, generoaren eta

komunikazioaren alorrean lidergo indigenarako Hezkuntza Orokorrerako Eskola: 2.Fasea" (Eusko Jaurlaritz) eta "Herri indigenen nazioaniztun estatua eraikitzeko baliabideak sendotzea" (AECID) 2011.urtean ere CEBREC eta Mugarik Gabe erakundeek, kooperazio bide berri bat irekiz, "Komunikazioaren Agentzia Nazioaniztuna" sortzeko proiektua aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzan. Hainbat erakunde egin dute Agentzia honen aldeko apustua, hauek besteak beste: Boliviako Herri Indigenen Konfederazioa (CIDOB), Boliviako Langile Nekazarien Konfederazio Sindikala (CSUTCB), "Bartolina Sisa" Boliviako Emakume Indigena Nekazarien Konfederazio Nazionala (CNMCIQB "BS"), Qullasuyo-ko Ayllus eta Markas-en Kontseilu Nazionala (CONAMAQ) eta Boliviako Komunitate Interkulturalen Konfederazioa (CSCIB).





Zer egiten dugu gure inguru hurbilean

17

Kanpaina

HEZKUNTZA

PATRIARKATURIK GABE DENOK JABE

Indarkeria matxistak, hainbat aldaeratan, ez dira desagertu, bere horretan dira. Aurrerapen ugari egin dira, batez ere, legearen alorrean, lege espezifiko zenbait onartu baitira. Halaber, gizarteak hobeto ezagutzen du gai horrek duen konplexutasuna. Hala eta guztiz ere, egindako ahaleginak indarkeriaren ondorioak izan dituzte jomuga —zehazki, indarkeria fisikoaren ondorioak— eta albo batera utzi dira indarkeriaren beraren kausak.

Horregatik, Mugarik Gabe erakundeak, 2011ko jarduerak aurrera eramateko orduan, ahalegina egin du indarkeria matxisten kausa, hots, sistema patriarkala, agerian uzteko eta haren konplexutasuna ezagutarazteko. Halaber, indarkeria fisikoaz harago, bestelako indarkeriak egon badaudela erakutsi dugu: psikologikoa, ekonomikoa, sinbolikoa, sexuala eta egiturazkoa.

Jarduera horiek guztiak hurrengo bost urteetan zehar aurrera eramango dugun kanpaina zabal baten parte dira. Kanpaina horri Patriarkaturik gabe denok jabe deritzo, eta haren helburua, epe luzera, zera da: emakumeen aurkako indarkeriaren ideia zabaltzea eta horretan sakontzea ikuspegi globala eta nazioartekoa oinarri hartuta. Ikuspegiak tratu txar fisikoez harago joan nahi du, eta munduko hainbat tokitan bizi duten errealitatea eta guk geuk bizi duguna lotu.

JORNADAS:
VIOLENCIAS MACHISTAS Y ESTRATEGIAS PARA ENFRENTARLAS

JARDUNALDIAK:
INDARKERIA MATXISTAK ETA HORIEI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK

Bilbao, urriak 4, 5 eta 6.
Lanaldintza eta EHUKo Paraninfoan
(Abandoibarra)

Bilbao 4, 5 y 6 de Octubre.
Lan Ekintza y Paraninfo de la UPV
(Abandoibarra)

Organiza:  MUGARIK GABE
ERAKUNDEA

Colaboración:
 Bilbao  UPV



Martxan Documentala

Ildo horretan, bada, honako jarduera hauek egin ditugu:

Martxan dokumentala: Indarkeria matxisten aurrean feministak martxan.

El Salvador, Guatemala eta Euskal Herriko 8 emakume feministen ahotsa lagun, mundu osoko emakumeek jasan behar dituzten indarkeria matxistei buruzko gogoeta egin dugu. Emakume bakoitzak indarkeria-modu horiek salatu eta haiei heldu eta aurre egiteko hainbat bide aurkeztu dizkigu, eredu patriarkala zalantzan jarriz eta feministen antolakuntza kolektiboa proposatuz desberdintasunekin eta indarkeriekin amaitzeko estrategia gisa.

Emakumeen indarkerien aurkako zinema-emanaldiak

Martxoaren 22tik 30era bitartean, gai horri buruzko filmak ikusi ahal izan genituen Gasteizko, Bilboko eta Donostiako zinemetan. Halaber, emanaldiei hasiera emateko hiru konferentzia antolatu genituen.

Indarkeria matxisten aurkako erakusketa orokorrak Indarkeria matxisten aurkako erakusketa orokorrak

Erakusketa egin genuen, sentsibilizazio- eta salaketa-kanpainetatik ateratako hainbat kartel eta lelo erabilia. Lelo eta kartel horiek, gehienbat, Latinoamerikako, Espainiako Estatuko eta Euskal Herriko erakunde feministek eginak ziren.

Mugarik Gabe erakundeak buletina argitaratu zuen, kanpainaren berri emateko

Erakusketarekin batera buletina argitaratu genuen, gai eta iritzi gehiago ezagutarazteko.

Indarkeria matxistei buruzko elkarrizketa-saioak

Talde espezifikoek zuzendutako topaketak antolatu genituen, estrategietan sakontze aldera. Elkarrizketak egin genituen, bada, erakunde publikoekin —Emakunderekin eta Lankidetzaren Euskal



La coeducación es el camino



hausketa mahaiak emakumaaren martxa

Agentziaren laguntzaz—, gizarte mugimendu eta GGKEekin eta, azkenik, hedabideekin.

Indarkeria matxistei eta haiei aurre egiteko estrategiei buruzko jardunaldiak

Euskal Herriko mugimendu feministaren parte batekin eta Latinoamerikan ditugun bazkideekin lankidetzan antolatu genituen. Hiru egunez, honako gai hauek jorratu ziren: egiturazko indarkeria; indarkeria matxisten jatorriari eta kausei buruzko hainbat ikuspegi; indarkeria sinbolikoa; indarkeria matxistaren aurka garapenerako lankidetzaren bitartez lan egiteko askotariko esperientziak eta indarkeria matxistei hezkuntzaren, nazioarteko esparru juridikoaren edo oroimen historikoari buruzko ikerketa feministaren bitartez aurre egiteko alternatibak. Arratsaldean, hiru tailer antolatu ziren, aldi berean, indarkeria matxisten aurka borrokatzeko esperientzia praktikoak ezagutarazteko.



Jardunaldien amaieran festa antolatu genuen; hainbat adierazpide artistikotako taldeek parte hartu zuten. Arteaz ere gozatu ahal izan genuen, Amaia Vicenteren lanari esker.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako herrietan egindako lana:

Tokiko hainbat elkarte eta eragilerekin lankidetzan, zinema-emanaldiak antolatu genituen 13 herrietan.

Zortzi urte generamatzan herrietan zinema-emanaldiak antolatzen, eta 2011n erabaki genuen sentsibilizazio-ekintza puntualak hezkuntzari lotutako ekintza egonkor bilakatzea. Hartara, lan-prozesu bati ekin genion, epe ertain eta luzera begira. Gure asmoa da sinergiak eta aliantzak sortzea, enpoderatzearen bitartez eta kezkatzen gaituzten gaietan sakonduz subjektu kritiko berriak garatu eta indartzeko, betiere, gertuen dugun esparruan gizartea eraldatzea helburu.

Bizkaian antzerki-emanaldiak antolatu genituen. Parte-hartezko metodologiak lagun —antzerki foruma delakoa kasu—, ikusleak ere inplikatu ziren.

Gipuzkoan Jabetuz prozesuari ekin genion, hainbat zinema forum, antzerki forum eta prestakuntza-hitzaldiren bitartez.

Arabara, azkenik, Desenrolatu prozesuari ekin genion. Neska eta mutil gazteei zuzendutako ekimena da, eta genero-berdintasunari eta ikus-entzunezko baliabideei buruzko prestakuntza-saioez osatuta dago. formativas.

Y en Araba inició el proceso Desenrólate con jóvenes y jóvenes que consta de varias sesiones de formación sobre equidad de género y medios audiovisuales.

13 MUESTRA DE CINE Y COOPERACIÓN
ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIA

"COMPARTIENDO REALIDADES, GENERANDO TRANSFORMACIÓN"
"ERREALITATEAK PARTEKATUZ, ERALDAKETAK SORTZEN"

DOMOSTIA 2010

PELÍCULAS PEKULAK
CINE LA BRETZA ZINEMAK
SAIOAK / SESIONES: 17:30 - 20:00 - 22:30

MARTXOAK 15 DE MARZO
El velo de Berio (Chili)

MARTXOAK 16 DE MARZO
Nuestra historia está en la tierra (Venezuela)

MARTXOAK 17 DE MARZO
13 Pueblos en defensa del agua (México)

MESAS DE REFLEXIÓN Y DEBATE EZTABAIDA MAHAIAK
SALA DR. CAMINO ARISTO
calle 31 Agosto kalea 19:00 h.

MARTXOAK 23 DE MARZO
"La comunicación como herramienta de lucha y transformación desde las mujeres"

MARTXOAK 24 DE MARZO
"Estados plurinacionales y procesos políticos. El caso de Bolivia y Ecuador"

MARTXOAK 25 DE MARZO
"El impacto de las transnacionales en los Pueblos Indígenas de Colombia y su responsabilidad global"

ALKERA ASKERO KREDITUA
1 CRÉDITO DE LIBRE ELECCIÓN

info: gipuzkoar@mguzar@gobe.org / 943 44 59 77



Elikadura-subiranotasuna eta zentzuz eta arduraz kontsumitzea

Urtean zehar gai horren gainean hezkuntzaren esparrurako dugun estrategia definituz joan gara. Plan estrategiko berriko helburuak gogoan, aurten garatu ditugun jarduerak etorkizunean lehenetsun gisa joko ditugun aliantzak definitzen lagundu digute. Ahal den neurrian, GGKEekin eta gure antzeko lan-ildoak jorratzen dituzten taldeekin bilatuko ditugu aliantzak, gizarte-aldaketak ahalik eta indartsuen bultzatzea helburu.

Arabian lana aski errotuta dago, Zentzuz Kontsumitu partzuergoaren bitartez eta Arabako Medicus Mundiren, Fundacion Paz y Solidarid fundazioaren eta Setem Hego Haizea erakundearen laguntzaz.

Bioalai elkartearen barruan, zentzuz kontsumitzeko lan-taldeari laguntzen jarraitu dugu. Elkartek alde aurretik egin duen erosketa-protokoloa eta hari buruzko gogoetak eta eztabaidak oinarri, elikadura-subiranotasunean sakondu dugu. Azaroan bisita bat antolatu genuen, bertako bi ekoizle ezagutzeko.

Mendizorrotzako Ostalaritza Eskolan, 4 orduko prestakuntza eman genien 1. eta 2. mailetako ikasleei. Prestakuntza osatzeko, zentzuz eta arduraz kontsumitzeari lotutako irizpideak aplikatzen ari den jabetxe bat bisitatu genuen.

CCOO sindikatuaren bitartez, zentzuz eta arduraz kontsumitzeari buruzko hainbat tailer eman genituen ekainean, sindikatuko delegatuei zuzendutako prestakuntzaren barruan

Ingurumen Gaietarako Ikastegiaren prestakuntza-espazioetan parte hartzen jarraitu dugu. Baratz zaintza ekologikoko programaren barruan, bi tailer antolatu genituen. Hiri-ekologiako ikasgelan, bestalde, ¿Qué cereales producimos?, ¿Qué cereales comemos? bideoa aurkeztu genuen, Bionekazaritza elkartearekin batera.

Halaber, guneak sortzen jarraitu dugu, gure aliatu diren hemengo kolektiboek Hegoaldeko herrialdeetako antzeko kolektiboen edo homologoen errealitateak ezagut ditzaten eta haiengana hurbil daitezten, besteak beste: Kontsumitzailearen Defentsarako El Salvadorreko Zentroko zuzendariarekin elkartu ziren lankide ditugun zenbait eragile, eta Chiapaseko Jolom Mayaetik eta Kinal Antzetik ehungintza-kooperatibako emakumeen lana ere ezagutu ahal izan dugu.

Irailean zentzuz eta arduraz kontsumitzeko gida argitaratu genuen; Arabako elkartei zuzenduta dago (consumoresponsable.info-n eskura daiteke). Txanotxoren

saskia DVDa ere zabaldu genuen, hainbat formatutako materialarekin. Euskarazko eta gaztelaniazko ipuin bizidunaz gain, eztabaidarako gida eta erakusketa ere prestatu genituen.

Bizkaian, Alternatibak partekatzen: desazkundea eta bizitze ona deritzen jardunaldiak egin ziren. Topaketak desazkondearen eta bizitze onaren gainean egun sortzen ari diren paradigmak ezagutzera emateko balio izan zuen, bi alternatiba horietan sakonduz eta aliantza posibleak eta erronkak aztertuz. Lehen eguneko mahai-ingurua "Desazkundea eta bizitze ona, sortzen ari diren paradigma berri gisa: zailtasunak eta erronkak" izenburupean gauzatu zen. Bigarren egunean, berriz, "Iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremani buelta eman" izenburupean, beste mahai-inguru bat antolatu zen, bai eta hainbat gairi buruzko tailerrak ere: Alternatiba Praktikoak, Aliantzak eta Sareak eta Ekimen Politikoak.

Ekintza hori Ekologistak Martxan, Desazkundea, GGKEen Koordinakundea, Paz con Dignidad, REAS eta Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkarteekin batera antolatu genuen. Ekintzaren balorazio orokorra oso positiboa izan zen. Horregatik, 2012an ere desazkondeari eta alternatibei buruzko bigarren topaketa antolatzea erabaki dugu, gai horretan sakontzen jarraitzeko.

Gipuzkoan lehenengo urratsak egin dira Marmalur deritzon proiektua abiarazteko. Haren helburu nagusia da lurralde horretan zentzuzko eta ardurazko kontsumoaren eta elikadura-subiranotasunaren alorrean lanean diharduten eragileak mapa batean kokatzea. Halaber, Saretuz deritzon ekimena abiarazteko oinarriak ere ezarri ziren; Emausekin lankidetzan eramango da aurrera.

Spot Sozialen Nazioarteko 5. Lehiaketa

Lehiaketa honen xedea da **elikadura-subiranotasunaren** kontzeptua herritarren artean ezagutaraztea.

Horretarako, bada, gaur egungo nekazaritza- eta elikadura-sistemaren funtzionamendua eta sistema horiek ekoizleak eragiten eta kontsumitzen dituzten lagunengan dituen ondorioak salatzea, aldi berean, emakumeek, munduko hainbat txokotan eta gure inguruan ere, jasan behar dituzten berriazko ondorioak aagian utzi nahi ditugu.

Lehiaketaren oinarriak
www.mugarikgabe.org y www.zurevision.org

Zure Vision  **MUGARIK GABE**
Organización de Consumidores y Usuarios
para un Desarrollo Humano, Social y Sostenible
www.mugarikgabe.org

saria **200 €koa.** **Social Vision** 

Lanak jasotzeko azken eguna 2012ko apirilaren 14a izango da.



MANIFESTAKZIOA

INDARKERIA SEXISTAK

MILA AURPEGI:
ERANTZUN!



20

Zer egiten dugu gure inguru hurbilean

HEZKUNTZA eta SENSIBILIZAZIOAN LOTUTAKO proiektuak 2011n

Erakundea	Gaiak	Emandakoa
Bizkaiko Foru Aldundia	Elikadura-subiranotasuna eta zentzuz eta arduraz kontsumitzea: topaketa; herrietan	55.076,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	Indarkeria matxistak: herrietan	56.809,91
Arabako Foru Aldundia	"Desenrolatu", herrietan	15.000,00
	Indarkeria matxistak	9.722,48
Eusko Jaurlaritza	Indarkeria matxistak	229.284,21
Bilboko Udala	Indarkeria matxistak	15.000,00
Donostiako Udala	Elikadura-subiranotasuna eta zentzuz eta arduraz kontsumitzea: <i>Zentzuz kontsumitu</i> partzuergoa	19.816,46
Gasteizko Udala	Indarkeria matxistak	2.500,00
	Elikadura-subiranotasuna eta zentzuz eta arduraz kontsumitzea: <i>Zentzuz kontsumitu</i>	70.000,00
Emakunde	Indarkeria matxistak	1.530,00
GUZTIRA		474.739,06



Arabako Herrialdea

Urtean zehar lan sendoa egin dugu Gasteizko Udalean eta Arabako Foru Aldundian eragin politikoa edukitzeko; Araban, lankidetzaren arloan aplikatu dituzten politikekin ados ez gaudela adierazi diegu. Militantez osatutako erakundeek, gizarte-mugimenduek, GGKEek eta sindikatuak, gu guztiok, garapenerako lankidetzara eta bestelako arlo sozialetara bideratutako aurrekontuetan egindako murrizketak salatu ditugu, politika patriarkal eta neoliberalen ondorio direla jakitun.

Elkartasunik ez dagoen lekuan indarririk ez dagoela jakin badakigu eta dibertsitateak alternatiba integralak sortzen dituela; horregatik, sareak eta plataformak eraikitzen jarraitzen dugu. Euskadiko GGKEen Koordinakundearen bitartez, salaketa-ekintzak eraman ditugu aurrera, Udalaren aurrekontua %É90 murriztu dela agerian uzteko. Horrek esan nahi du, bada, tokian tokiko bazkideekin hitzartutako konpromisoak bertan behera utzi beharko ditugula eta, bestalde, kolokan jartzen ditu Araban azken 25 urteetan lankidetzaren arloan gauzatutako prozesuak eta emaitzak.

Alderdi Sozialistak sustatutako murrizketak lankidetzarako hitzartutako aurrekontuaren %É1era

ezin iristea zekarren; hitzarmen hori, hain zuzen, alderdi politikoa guztiek sinatu zuten 2011n. Bestalde, Alderdi Popularrak 2010-2013 aldirako Gidaplana ez du bete, eta, ondorioz, Udaleko Lankidetzaren Kontseilua utzi dugu, adostutako hitzarmenak betetzeko benetako borondaterik ez dagoela ikusita.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketa txarraren aurrean, salaketak koordinatzeko lana eramaten ari gara aurrera Gizarte Eskubideen Plataformaren bitartez. Horrek, gainera, babesgabetasun-egoeran uzten ditu gure hiriko pertsona ugari. Ildo beretik, Gasteizko Udalaren mende dauden 18 eta 23 urte bitarteko gazteen egoerari erantzun behar zaio.

Beste zazpi talderekin batera, Gasteizko Plataforma Feministan parte hartzen jarraitzen dugu. Urte honetan zehar, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko manifestazioak antolatzea izan da plataformaren zeregin nagusia. Bi manifestazioetan eta haietan irakurritako komunikatuetan garrantzi berezia izan zuen sistema kapitalista eta patriarkalak eragindako krisia eta krisiak emakumeen bizitzan dituen ondorioak. Hala, bada,





krisiari aurre egiteko proposamen feministak plazaratu ziren. Euskal Herrian gertatu diren hilketa matxistak salatzeko kontzentrazioetarako ere koordinatu gara. Ekintza horiek Andra Mari Zuriaren plazan egiten dira beti, arratsaldeko 8etan, hilketa gertatu eta 48 ordura. Halaber, Bilbon, abenduan, indarkeria matxisten aurkako manifestazioan ere parte hartu genuen.

Beste proposamen eta aukera batzuk bideragarriak direla frogatuz, 2011ko ekainean, Zentzuz Kontsumitu proiektuaren bitartez, De la teoría a la Acción topaketan parte hartu genuen Desazkundera Gazteiz eta beste talde batzuekin. Ekimen horren helburua zen trukerako gune bat sortzea zentzuzko eta ardurazko kontsumoari lotutako hiriko erakunde eta taldeen artean, eta Gasteiz trantsizioan proiektua bultzatzea. Esperientzia hori, hain zuzen, Hiriak trantsizioan mugimenduan oinarrituta dago. Egun horretatik aurrera, bada, zenbait talde tematiko hasi ziren lanean: elikadura, garraioa, lana, osasuna, hezkuntza eta herritarren enpoderatzea. Talde horien bidez beste hiri-eredu batekin "amesten" hasi nahi da, herritar gisa, gure inguruan benetako aldaketak egin ditzakegula sinetsita. Argibide gehiago hemen:

<http://rediles.com/gasteizentzian/>



Duela urte batzuk eskuratutako eskubide sozialei egindako erasoek gizarte presioari eutsi beharko zaiola pentsarazten digute. Etorkizunera begira, beraz, antolatu beharko gara, sarean koordinatu eta geure eskubideak aldarrikatu. Jakin badakigu lan asko dugula egiteke, eta lan hori kolektiboki eraman behar dugula aurrera. Horregatik, bada, gizarte-mobilizazioan inplikaturik dauden boluntarioen ekipoa ere badugu.

Bizkaiako Herrialdea

Bizkaian, 2011. urtean zehar, nabarmendu beharrekoa da beste gizarte-mugimendu batzuekin lankidetzan jardun dugula. Lankidetzan hori, gure aburuz, ezinbestekoa da partekatzen ditugun kezak herritarrei helarazteko, bai eta nazioarteko ekintzak eta salaketak exijitzeko gizarteari eta erakundeei, eta modu horretan, eragin handiagoa lortzeko.

Aurten honako plataforma eta koordinakunde hauetan parte hartu dugu:

- **Legegintzarako Herri Ekimena**, ekimen hori betetzen ez dela zabalteko.
- **Kalea Guztona da**. Kaleak okupatzeko olinpiada-proposamena landu dugu.
- **Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko** manifestazioak. Beste urte batzuetan bezala, modu aktiboan parte hartu dugu manifestazioaren antolaketan eta aste horietan zehar egindako jardueretan.

Herrialdean bertan, komunikatua osatzeko ideiak ere landu dira.

- **Indarkeria sexistaren aurkako** Manifestakzioa. Mugimendu feministak koordinatuta lan egin zezan planteatu genuen, azaroaren 25az harago, indarkeria sexistaren aurkako ekintzez osatutako aste nazionala antolatzeko.
- **Indarkeriari buruzko Legea** (Feministalde). Urtearen amaieran, Feministalde Euskadirako prestatzen ari diren Indarkeriari buruzko Lege berria salatzen hasi zen. 2011n, hain zuzen, kanpaina hori koordinatzeko lehendabiziko bilerak antolatu ziren, eta aurkeztutako alegazioekin bat egin genuen.
- **GGKEen Koordinakundera**: Generoaren, eragin politikoaren eta mobilizazio eta komunikazioaren arloetan diharduten lan-taldeen lanean jarraitu dute hainbat espaziotan.
- Munduko Arrozak kultur arteko jaiak.



Herrialdean jorratu den beste gai espezifiko bat Zapalduaren Antzerki Tailerra izan da. Herri-pedagogiaren metodoan oinarritutako lan egiteko modua da, Paulo Freireren teorian oinarritua eta Augusto Boalek egokitua. Haren funtsa audientziaren eta aktorearen arteko elkarrizketa eta interakzioa da, ikuslea ez ezik aktore ere baden lagunarengan gogoeta piztea helburu.

Bestalde Nikaraguan bazkide dugun Xochilt-Acalt erakundearen bisita izan dugu. Urte asko daramatzagu haren lana babesten Malpaisilloko landa-eremuko emakumeen enpoderatzea lortzeko.

Gipuzkoako Herrialdea

Aurten, Gipuzkoan, beste behin, Donostian ez ezik herrialdeko herri ugartan ere aritu gara lanean. Bi kasuetan, Patriarkaturik gabe denok jabe kanpaina izan da protagonista nagusia. Kanpaina horren bidez, bada, indarkeria matxistak salatu eta haiei aurre egiteko alternatibak proposatu ditugu.

2011n zehar, Arrasaten, Zarautzen eta Tolosan hezkuntza-prozesuak modu jarraituagoan lantzea erabaki genuen, herri bakoitzeko taldeekin lankidetzan. Hezkuntzaren arloari heltzeko eta hura lantzeko moduaren aldaketa nabarmena izan da, eta fruituak ematen hasi da. Halaber, beste erakunde batzuen laguntzari esker, eta egin dizkiguten eskaerei erantzunez, azkenean indarkeria matxisten gaia jorratzen zuten filmak ikusi eta eztabaidatu ahal izan dira Gipuzkoako 7 herri hauetan: Eskoriatzan, Arrasaten, Azpeitian, Anoetan, Zarautzen, Tolosan eta Bergaran. Emanaldiek oso harrera ona izan dute kalitateari, ikusle-kopuruari eta, batez ere, eztabaidetan egon den parte-hartzeari dagokionez. Izan ere, oso espazio aberasgarriak sortu dira.

Donostian, bi hauek izan ziren urteko hitzordurik garrantzitsuenak: Batetik, Martxan dokumentalaren estreinaldia —arrakasta handia izan zuena ikusle-kopuruari, parte-hartzeari eta ikusleen erantzunari



dagokionez— eta, bestetik, emakumeen indarkerien aurkako zinema-emanaldia. Azken horren aurkezpena Nuria Varelak egin zuen Emakumeen Etxean. Bi ekitaldi horietan musika- eta arte-ikuskitzuna egon ziren, gaiari ikuspegi osagarri bat emateko.

Urtearen amaieran, Mugarik Gabe erakundearen ildo estrategikoetako bat —elikadura-subiranotasuna eta zentzuz eta arduraz kontsumitzea, hain zuzen— Donostian eta Gipuzkoan lantzen hasteko lehen urratsak ematen hasi ginen. Hartara, 2012ra begira, mapa batean kokatu genituen arlo horretan lan egiten duten erakundeak, eta haiekin modu koordinatuan lan egiteko modua definitzen hasi ginen.

Plataformetan izan dugun parte-hartzeari dagokionez, bigarren urtez jarraian, Donostiako Koordinakunde Feministaren parte izan gara. Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko manifestazioak prestatzen lagundu diegu. Bai Koordinakunde Feministaren bai Indarkeria Matxisten aurkako Kanpainaren bitartez, nabarmen estutu da Donostiako eta Gipuzkoako mugimendu feministarekin dugun harremana; estrategikotzat jotzen dugu hori.

Bestalde, GGKEen Koordinakundearekin eta Donostiako Pobrezia 0 plataformarekin dugun konpromisoari eutsi diegu. Koordinakundearen bidez,



bada, kazetariekin egindako gosari batean parte hartu genuen; ekitaldi horretan desazkundeari eta Gabonetako kontsumismoari lotutako alternatibei buruz hitz egin genuen.

Bestalde, 0 Pobrezia Plataformaren barruan, irratiprograma bat egin dugu hileroko, hainbat gizartegai jorrotuz. Horretaz gain, beste behin parte hartu genuen zenbait ekintzetan: besteak beste, Arrazismoaren Aurkako Martxa eta Munduko Arrozen jaian. Azken horretan, hain zuzen, berriro irabazi genuen arrozik jasagarrienari ematen zaion saria. Dena den, ahalegin handienak, ohi bezala, urrian antolatutako pobrezia aurkako astean egin genituen. Aurtengo programa inoizko zabalena izan da: 3 hitzaldi (San Telmo museoan, lehendabiziko aldiz), Gran superficie dokumentalari buruzko zinema foruma, kontsumoari buruzko kontrairagarkien gaineko erakusketa, herri-bazkaria eta Bizi Martxa. Parte-hartzeari buruzko datuak oso positiboak izan ziren; desazkunde ekonomikoaren aldeko apustua eta gure kontsumo-ohiturak aldatzeko beharra izan dira jarduera guztietan jorrotuko gaiak.

Udalaren Lankidetzaren Arloko osoko bilkuran eta Lankidetzako Batzorde Iraunkorren parte hartzen

jarraitu dugu. Besteak beste, honako gai hauek jorrotu ditugu: Gidaplanaren ebaluazioa; 2012-2015 aldirako Gidaplana; Pobrezia aurkako Hitzarmenaren jarraipena; diru-laguntzen deialdiaren oinarriak; erakundeek prestakuntzaren arloan dituzten beharrak; jarduerari buruzko informazioa eta erakundearen parte-hartzea sustatzea.

Barnera begira ere aldaketa-urtea izan da, gure lankidetzako bat ama izan baita. Oro har, esan dezakegu, herrialdea indartu egin dela, batez ere, militanteak eta gurean praktikan ari direnak modu iraunkorragoan konprometitu direlako erakundearekin. Herrialdearen eguneroko jardunean inplikatu dira, eta arestian aipatutako hezkuntza-jardueretan parte hartu dute.

Azkenik, nabarmendu behar da hedabideetan inoiz baino gehiago aipatu gaituztela eta Mugarik Gabeko kideek inoiz baino prestakuntza-saio gehiago eman dituztela, hala desazkundea eta zentzuzko kontsumoari, nola indarkeria matxistei edo herri indigenei buruz.

Horregatik, beraz, gure eskerrik beroenak 2011n zehar Gipuzkoan gurekin lan egin duzuen lagun, erakunde eta kolektibo guztiei.





GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Table with columns: Galera eta Irabazien Kontua, 2010, 2009. Rows include ERAGIKETA IRAUNKORRAK, A.1) Jarduera propioengatikotik entitatearen diru-sarrerak, A.2) FINANTZA EMAITZA, A.3) ZERGEN AURBETIKAKO EMAITZA, A.4) ERAGIKETA IRAUNKORREN ONDORIOZKO EKITALDIAREN EMAITZA, B) ETENDAKO ERAGIKETAK, A.5) EKITALDIKO SOBERAKINA.

MAZARREDO AUDITORES, S.L. Miembro nº 5-1.643 del Registro Oficial de Auditoría de Cuentas

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES

A la Asamblea General de la Asociación Mugarik Gabe:

1. Hemos auditado las cuentas anuales de la Asociación Mugarik Gabe que comprenden el balance al 31 de diciembre de 2010, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha.

2. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2010 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación Mugarik Gabe al 31 de diciembre de 2010, así como de los resultados de sus operaciones correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha.

MAZARREDO AUDITORES, S.L. Miembro nº 5-1.643 del Registro Oficial de Auditoría de Cuentas. FDO. RICARDO ORTUZAR GARCIA. Bilbao, 22 de septiembre de 2011



MUGARIK GABE EGOERAREN BALANTZEA

Table with columns: AKTIBOIA, 2010, 2009. Rows include A) AKTIBO EZ-ARRUNTA, I. Ibilgetu ukiezina, III. Ibilgetu materiala, VI. Epe luzerako finantza-inbertsioak, B) AKTIBO ARRUNTA, IV. Merkataritza-zordunak eta kobratzeke dauden beste kontuak, VII. Epe laburrerako periodokatea, VIII. Eskudirua eta balio berdineko beste aktibo likidoak, GO GUZTIZKO AKTIBOIA.

Table with columns: PASIBOIA, 2010, 2009. Rows include A) ONDARE GARBIA, I. Fondo propioak, III. Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako ondareak, B) PASIBO EZ-ARRUNTA, II. Epe luzerako zorrak, C) PASIBO ARRUNTA, III. Epe laburrerako zorrak, V. Onuradunak - Hartzekodunak, VI. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontuak, GO ONDARE GARBIA ETA GUZTIZKO PASIBOIA.



Ideando alternativas

Desazkundera
eta bizitze
ona topaketak



Alternatibak Partekatzen: Desazkundera eta Bizitze Ona

I. Topaketa



*Etengabe hazi,
gero eta gehiago ekoiztu,
gero eta gehiago kontsumitzeko,
gero eta gehiago, bai.
Kontsumoa bultzatu,
ekoizpena bultzatu.
gero eta gehiago hazteko.
Gero eta gehiago... gero
eta gehiago... sekula ez asetzeko.*

Azkenaldian, desazkunderari buruzko debateren bat antolatzen denean unibertsitatean, kultur etxe batean edo gure inguruko edozein gizarte-mugimenduren lokalean, entzuleen erantzuna, gazteena batez ere, ikaragarria da. Ziurrenik, "bonba" deritzen kontrakontzeptuak zenbait hutsune analitiko ditu eta munduan gertatzen ari dena adierazteko azalpen batzuk ditu faltan. Halere, pentsamolde bakarraren garaietan, bertute handia du: kontzientziak astintzeko eta alternatiba berriak, solidarioak eta antikapitalistak sortzeko balio du. Hori, bada, funtsezkoa da pentsamendu ideologiko berria sortzeko, nagusi den sistema sozioekonomiko kapitalista krisi sakonean dagoen honetan. Jarraian aurkeztuko dizuegun esperientziak beste behin erakutsi du desazkundera jasangarriak aukera ematen duela Iparraldeko eta Hegoaldeko mundu osoko askotariko gizarte-mugimenduetako lagunak eta erakundeak biltzeko, gogoeta egiteko eta ekintza sozioekologikoak aurrera eramateko loturak ezartze aldera. Ekintzaile eta ikerlarien olatu berri gero eta handiago batek erabiltzen du "obus" termino hori, eta haren asmoa da zalantzan eta kolokan jartzea produktibismo guztien, eta bereziki, gaur egungo kapitalismoaren oinarria: hots, mugarik gabeko hazkundera ekonomikoa. Ziurrenik, horretan datza haren erakargarratasun nagusia.

Bilbon, Desazkunderari eta Bizitze Onari buruz antolatutako topaketen harira, zenbait hilabetetan, 2010ko irailean hasi eta 2011ko martxoan bitartean, irakaskuntza- eta lankidetzazko esperientzia ezin interesgarriagoa partekatu genuen desazkunderaren defentsan diharduten Euskal Herriko gizarte-mugimenduetako lankideekin —gehienbat, emakumezkoekin— topaketak prestatu, aurrera eraman eta

ondorengo balantzea eta ebaluazioa egin bitartean.

Proposamena Mugarik Gabe erakundeak egin zuen, desazkunderaren aldeko apustu estrategikoa egin baitu, ikuspuntu feminista batean oinarrituta. Gaia lantzeko proiektu propioa badugu ere, lankidetzan jarduten dugu bizitze onari buruzko gogoetak egiten dituzten komunitate indigenekin. Izan ere, gure helburua da beste erakunde eta gizarte-talde batzuekin partekatzea topaleku eta eztabaidarako gune bat, betiere, sareak eratzearen alde egiten dugun apustuan oinarrituta. Egindako lehenengo bileran, topaketetan landu nahi genituen gaiak definitu genituen eta eztabaidetara zein lagun gonbidatu nahi genuen adostu genuen.

Desazkunderari buruzko eztabaidetan maizen aipatzen den kontuetako bat da nola eraman daitekeen proposamen hau Hegoaldeko herrialdeetara, hau da, nola hurbildu kontu hau herritar gehienak ongizate-maila txarrean dituzten lurraldeetara. Gehiengoan diogu, hain zuzen, toki batzuetan —Indian, Txinan, Mexikon edo Brasilen kasu— milioika lagun pobrezian bizi badira ere, dirudunak ere egon badaudelako, Iparraldeko herrialde industrializatuetako per capita errenta-maila antzekoak edo altuagoak dituztenak. Hartara, Hegoaldean bertan Iparraldea ere badago, eta lehenengo munduan laugarrena.

Euskal Herrian desazkunderaren proposamenari buruz izan ditugu eztabaida batzuetan, gai hori Hegoaldeko herrialdeetan nola planteatu daitekeen galdetu izan da beti.

Jakin bagenekien Latinoamerikan "bizitze ona"ren kontzeptu indigena suspertzen ari dela, betiere, azken hamarkadan gertatzen ari diren aldaketa politiko eta sozialen harira. Kitxuen sumak kawsay edo bizitze onaren kontzeptuak bizi duen

suspertzea aztertu nahi genuen, eta kontzeptu hori lparaldean zabaltzen ari den desazkunderaren aldeko proposamenari egokitzerik ba ote dagoen ikusi.

Ekuatorren eta Bolivian zera dute: alde batetik, lehengaiaren neurri gabeko erazketan oinarritutako garapen ekonomikoa eta, bestetik, ekosistemen defentsa. Azken hamarkadaz geroztik, konstituzioak aldatu egin dira, eta kitxuen sumadk kawasy edo bizitze onaren kontzeptua konstituzioaren printzipioen parte da. Jarrera hori, bada, mendeetan zehar jasan dituen zapalketa eta jazarpen koloniala errotik kentzea xede duen gizarte berri baten isla da. Lehengaiaren neurri gabeko erazketa gelditzearen aldeko apustua da. Jakin badakite haien ekosistemak mugatuak direla, eta ez daude prest horiek neurri gabe ustiatzeko. Horregatik, erazketa-enpresen gose aseeginari aurre egiten diote, edo nazioarteko kanpainak antolatzen dituzte —Yasuni-ren defentsa, esaterako— petrolioaren oihanaren lurraren azpian gera dadin eskatzeko.


Horiek horrela, lanari ekin genion Mugarik Gabe, Ekologistak Martxan, Desazkundera, REAS, Euskadiko GGKEen Koordinakundera, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniariak eta Paz con Dignidad erakundeetako kideok. Gure asmoa zen desazkunderari eta bizitze onari buruzko bi eguneko eztabaida-

jardunaldiak antolatzea Euskal Herriko Unibertsitatean.

Lehendabizi, suspertzen ari diren bi paradigma horiek alderatu nahi genituen, euren arteko aldeak eta antzekotasunak aztertu, eta horrek Euskal Herriko gizarte-mugimenduetan sortzen dituen zailtasun eta erronkei buruz eztabaidatu. Horretarako, bada, bi kontzeptuei eta haiei lotutako beste kontzeptuei buruzko ikuspegia azal zezaketen lagunak bilatu genituen (Alicia Puleo, Luis Macas, Yayo Herrero, Magdalena León eta Serge Latouche), betiere, alderdi feministari berebiziko garrantzia emanaz. Halaber, hainbat gizarte-mugimendutako lagunei (Ekologistak Martxan, Emakumeen Asanblada eta Besarkaden Ostatua) eskatu genien hizlarietara zuzendutako galdera-sorta bat presta zezatela, eztabaida bideratzeko.

Bigarren egunean, goizez, lparaldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruzko gogoeta (Magdalena León), nazioarteko lankidetzaren rola (Florent Marcellesi) eta anti-lankidetzaren delakoa (Mónica Vargas) jorratu ziren, betiere, desazkunderaren eta bizitze onaren proposamenak oinarri, eta ikuspegi feminista kontuan hartuta. Arratsaldean, berriz, hiru eztabaida-tailer edo -talde antolatu ziren desazkundera aurrera eramateko aliantza eta sinergieei buruz, EHUKo PARTE HARTUZ ikerketa-taldeko kideek koordinatuta.

Tailerretako batean desazkunderako ekimen politikoak landu ziren, beste batean alternatiba praktikoak eta, azkenik, hirugarrenean desazkunderaren bidean aurrera egiteko ezarri beharreko sare eta aliantzak aipatu ziren. Parte-hartzaileen erantzuna oso positiboa izan zen. Jardunaldiak hasi eta astebete lehenago aforoa beteta zegoen (izan ere, mugatua





zen, Ekonomia Fakultateko areto nagusiaren edukiera eta bertan itzulpenak egiteko baldintzak zirela-eta). Eztabaidetan 300 lagunetik gora parte hartu zuten, eta ekitaldiak hedabideetan izan zuen oihartzuna zela medio, elkarrizketa, artikulua eta interbentzio ugari egin genituen.

Jardunaldiak bide onetik joan zirela ikusita, eta antolatzaile gisa aritu ziren erakunde eta taldeetako kideen artean sortutako enpatia dela medio, aktibistek eta elkarrekin osatutako sarea eratu da. Sareko kideek, bada, modu koordinatuan lan egiten jarraitu nahi dute, etorkizunean bestelako jarduerak antolatze aldera. Asmoa, betiere, desazkundeari lotutako praktikak eta eztabaidak sustatu eta ezagutaraztea izango da.

Desazkunde jasagarriak aldaketa sozialerako tresna gisa duen birtualitateetako bat da gizarte post kapitalista eta desazkundan oinarritutako baterantz aldatzeko proposamen eta alternatibak biltzeko ahalmena duela. Teoria eta praktikaren arteko koherentziari eusten dioten jokamolde indibidualez gain (kolektiboki jarraitu beharreko bidearen adibide dira), desazkunderen ideien inguruan bildu daitezke askotariko kanpainen eta herritarrek bere proposatutako esperientzia alternatiboak. Esperientzia horiek, hain zuzen, informazioa, heziketa eta parte-hartzea sortuko dituzte eta desazkundeari lotutako programak sustatuko dituzte tokian-tokian, nazioetan eta nazioartean. Magdalena Leónen hitzetan,

sumak kawsay delakoa (komunitate indigenen kontzeptua bizitze ona adierazteko) Ekuadorreko Konstituzioan txertatu da. Kontzeptu horrek, bada, antzinako ikusmoldeak eta jardunak biltzen ditu bere baitan. Ekonomia feministak eta ekologistak orain hamarkada batzuk aurreratutako analisiak eta proposamenak ditu oinarri; planteamendu horiek zalantzan jartzen dituzte ekonomiaren eta aberastasunaren ideiak, forma klasikoaz eta neoklasikoaz ari garela, eta ezinbestekotzat eta ezin banatuzkotzat jotzen dituzte ingurumenaren jasagarritasuna eta giza jasagarritasuna.

Hartara, desazkundera eta bizitze ona, erreferente ideologiko gisa, eztabaida sozial zabal baten barruan eztabaidatu behar dira, euren planteamendu filosofikoak landu eta ekoizpen- eta kontsumo-eredu berrien sorrerarentz bideratzeko. Eredu horiek, bada, proposamen sozialistak, ekologistak eta feministak izan beharko dituzte oinarri-oinarrian. Horrek esan nahi du egun ditugun harreman sozialak eta ekonomikoak birplanteatu behar ditugula, erregai fosilen errektutzan oinarritutako aroa gainditu, eta berdintasunezko gizarte libre baterantz aurre egin. Hala, bada, desazkundera eta bizitze ona, panazea intelektualez harago, aldaketa soziopolitikorako tresna dira, denbora eta espazio zehatzetan aplikatzekoak. Tresna horiek, ekimen politiko antikapitalista, feminista eta ekologistez gain, aliantzak, sareak eta kanpainak ere behar dituzte, desazkundeari lotutako proposamen berriak garraio- eta energia-politiketan, kontsumoan edo aisialdian, enpleguan eta lanaren banaketan —zaintza-lanetan, bereziki, baina orokorrean bizitzako alderdi guztietan— txerta daitezten. Hain zuzen, topaketen amaierako ekitaldian, Yayo Herreroen hitzaldian, zerbait argi geratu bazitzaigun, zera izan zen: desazkundera eta bizitze ona feminismoaren bidetik etorriko direla ezinbestean.

Ikuspegi autokritikoa sekula galdu gabe, eta sare irekiak eta kooperatiboak eraikitzea helburu, ekologismoaren, feminismoaren eta sozialismoaren hiruko aliantza oinarri ona da etortzearen alderdi guztietan aurre egiteko. Horrek esan nahi du alderdi guztietan lasai eta deliberatuki heldu behar diegula, betiere, emakumeen eta gizonen arteko harremanak, gizakien artekoak eta gizakien eta naturaren artekoak justuak eta orekatuak izan behar direla defendatuz.

Íñaki Barcenak idatzitako artikulua, antolatzaile gisa jardun zuten taldeen laguntzaz.